# GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA 47. zenbakia 94ko maiatzak 13




SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

**Grupo Caja Laboral**
Euskadiko Kutxa Taldekoa

Nafarroa Etorbidea, 27
20200 Beasain (Gipuzkoa)
Tel. (943) 88 62 50 - 88 31 00

# BEASAINGO LOINATZ JAIAK

**Beasaingo udala**



## *Alkatearen Agurra*

*Euskadiko herri guztiek egiten dute pausaldi bat eguneroko lan gogorraren ibilbidean zehar jaiegun batzuetan gozatzeko.*

*Gu ere, beasaindarrok, gure aurreko Loinazko Martin Santu maitearen jaiaz baliatzen gara, benetako jai herrikoietan gozatzeko.*

*Azken urteotako bidetik jarraituz, aurten ere, herriko elkarte eta talde guztien laguntzarekin, kultur eta kirol-iharduerak festa eta dibertsiokoekin osatuta azaltzen dira egitarauean.*

*Beraz, guztiok goza ditzagula jai hauek. Zorionik beroenak beasaindar guztioi eta ongietorri-agurra bisitatuko gaituzuen denoi.*

**Alkatea: Jose Luis Arriola Trueba**




HALTZARIAK

TXINDOKI

***Sukalde eta bainuko haltzariak***

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean) ☎ 88 03 98 BEASAIN





CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

**MEXIKO D. F.-KO METRORAKO LEHEN UNITATEEN UNTZIRATZEA**

# GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

**47. zenbakia. 94.eko maiatzak 13. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.**

**Argitaratzailea:** "Goierritarrak" Kultur Elkartea.
**Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean). Tfna: 889612. Faxa: 161463. 124 posta kutxa, Ordizia.**

**Erredakzioa:** Jon Arano, Mikel Albisu.

**Publizitatea:** Josune Agirre, Argider Mujika.

**Erredakzio Batzordea:** Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

**Kronista eta kolaboratzaileak:** Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Gurutze Aldabe, Aitor Calvillo, Xabier Glez. Ezama, Arantxa Goiburu, Rufino Iraola, Nekane Altuna, Aloña Galarraga, Maite Amundarain, Ion Aldanondo, Edurne Albizu, Antonio Berasategi, Aitzol Arruabarrena, Arkaitz Arruabarrena eta Andoni Sarriegi.

**Azala eta zenbait argazki:** Foto Alzuri

**Fotokonposaketa eta maketazioa:**

«Goierritarrak» Kultur Elkartea

**GOIERRITARRA. Inprimaketa:** ANtzA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

**ISSN:** 1132-0907

**Lege Gordailua:** SS-926/89

**Frankeo kontzertatua:** 37/76

**GOIERRITARRAk ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**



**Erdiko gehigarri berezia:** *Beasain eta Legorretako festak (8 orri)*

# NON ZER

**4. eskutitzak**

**5. agenda:** *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Beasain eta Ordiziako kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

**8. iritzia txandaka:** *Olaberriako migrazio-mugimenduen ondorioak*

**9. besteek esana, inkesta:** *Nola ikusten dituzu korrupzio kasuak?*

**10. Goierriko berri:** *Goierriko Lanbide Eskola e. a.*

**12. Erreportaia** *GOIERRITARRA sendotzea beharbeharrezkoa du Goierrik*

**14. hemen eta orain:** *Goierriar gutxitu fisikoak eskiatzen*

**15. herriz herri:** *Ataun, Zegama, Ordizia, Beasain, Zaldibia, Lazkao, Itsasondo, Ormaiztegi eta Idiazabal*

**22. kirola:** *Ordizia K. E.-ko Eskubaloi Taldea*

**23. goierritar klasikoak:** *Migel Antonio Zumalakarregi*

**GOIERRITARRA** etxean jaso nahi dut

**NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT**

IZEN-DEITURAK ..........................................

HELBIDEA ..........................................

HERRIA .................... TLF. ....................

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

GOIERRITARRAK GOIERRIKO UDALEN LAGUNTZA DU

# Eskutitzak

## Zirkoa zirkoan eta botoa golkoan

Kontrapasea dela eta, antzarrak dira hemendik paseak. Eta hala, batek, GOIERRITARRA balkoi, "zirkoa" eta "botoa" dizkit aipatu, besteak beste. Eguraldi lardats hauekin ez zirela bide urrutian aurrera joango eta leihora zuzendu naiz. Eta laster batean han nituen, aurrez-aurre, lehenera.

Gauza bakoitzak bere lekuan ederki ematen du; eta hala bada, zirkoan zirkoko xelebrekeriak. Hortik kanpo zirkoa ikustea zantarra gertatzen da; pailazo izatea eta pailazoarena egitea arras ezberdinak dira. Eta hortik honerakoa bi hankakoa lauko bihurtzen denean, akabu! Baina antzarrak zioen legez halaxe da, zoritxarrerako. Aitzitik, ez nau batere asaldatzen, ezen horrela dabilenarengandik (itxurak egiten) besterik ezin baita espero. Pena galanta bai hartu lau hankakoengatik eta pailazoengatik, euren lanpostuez jabetzeagatik eta euren nortasuna euliaren kakaren parean jartzeagatik.

Nik bai, antzarrak ez bezala, nik botoa golkoan gordeko dut. Burutik (oraindik lepagainean sentitzen dut) pasa ere ez inori nireak ez direnak leporatzea. Ai zein maltzurkeria botoa ematearena! Jendeak ematen duenean *hartzeko* miran baizen ez du ematen. Hartuko du jakina; bai kolpe galanta! Baina zer espero dezakegu, bada, alderdiengandik! Xexioa xexioaren atzetik eta aurretik inkixixioa. Edota antzarraren hitzetan "osoko bilkura", harrapazak!

Leihoa ixtera noa; arean, antzarrak urrutiratu bait dira ez entzuteko modurainoxe. Hala ere, atzekaldekoari, burua jiratu didanean, nahi duan arte esateko aukera ez galdu guran eta bi besoez nire agur beroenak bidaltzearekin batera, A letra, D letra eta I letra dizkiot erakutsi pankarta erraldoi batean. Eta nire golkorako "goibeltasun horretan, eutsi goiari!, ez etsi!, aurrera egin gura baduzue behinik".

***Pello Sarriegi Urretabizkaia, Barrika (Bizkaia)***

## Heziketaz

Gaur egungo ume eta gazteetaz hitz egiten hasten garenean lehenago edo beranduago erabiltzen ditugun hitzak dira "lotsagabeak", "axolagabeak", "buruarinak", "alperrak"... Eta azterketaren hurrengo urratsean zera gaineratzen dugu: "ikastetxeetan nik ez dakit zer eta nola irakasten dieten... errespeto handirik ez behintzat!"

Baina umeak, eta umeak bezala gazteok eta helduok, non hezitzen gara? Nork hezitzen gaitu? Noiz? Nere ustez, uste apalez, jaiotzen garenetik hil arte, baita zahartzarorik zaharrenean ere, hezitzen ari gara, ikasten, irakasten, pertsona bezala osatzen. Bestalde, hezitzeko ez dago eskolara, ikastolara edo unibertsitatera joan beharrik. Eta, gainera, gu heziko gaituenak ez dauka horretarako "eskubidea" ematen dion "titulo" beharrik (majisteritza, pedagogia...) Bizi dugun inguruak hezitzen gaitu: gurasoek, senideek, bizilagunek, irakasleek, lagunek, komunikabideek, kaleak, etxeak, eskolak...

Beraz, gaur egungo ume eta gazteen jokabideak benetan kezkatzen bagaitu, azter dezagun gure burua, gure jokaera, gure ingurua, ume eta gazteei errierta egin baino lehen. Azter dezagun gure etxeko funtzionamendua, sua dariola ikastetxeko irakasleengana joan aurretik (eta honekin ez dut esan nahi heziketa ezin hobea eskaintzen ari garenik ikastetxeetan...)

Ume eta gazte arduratsu, alai, "langile" eta sanoak nahi baditugu, etxeko heziketa bide horretatik bideratzea derrigorrezkoa da. Eta Udaletatik hasi eta Instituzioek (politiko zein sozialek) duten garrantzia izugarria da: kale-zuloan eta taberna-txokoetan edaten ibiltzeko eredua eman eta aukera trixte eta bakarra eskaintzen badiegu, ez ditzagula horixe egiten dutenean kritikatu. Pertsona, familia, ikastetxe eta elkarte bakoitzak geure zilborrari ondo begiratu ondoren eta esandakoak kontuan hartuta, erakunde zabalago batetara zuzendu nahi dut nire eskaria: Udaletara. Eta hauxe eskatzen dizuet: zabal ateak eta eskaini laguntzak kultur mailan "zerbait" egin nahi duten talde eta elkarteei: kirola, hitzaldiak, ikastaroak, irteerak, elkarrizketak, jolasak, harremanak... guztiak eta guzti horiek zentzu zabalean behar dute lekua, gusto askotakoak bait gaude.

***Pedagoga bat***


ARRIKUTZ TAILERRAK, C.B.
Autoen konponketa Orokorrak

PROBA-MAHAIA:

- Proba-Mahaiko Zerbitzu guztiak
- Frenoak
- Suspentsioa
- Norabide Zuzenketa
- PRE-ITV errebisioa



Nafarroa Etorbidea, 53
Tfnoa: 88 52 00 • BEASAIN

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

| | |
|---|---|
| Mendi-Ondo etxea | Esteban Lasa, 7 |
| Tfonoa: 88 40 57 | Tfonoa: 88 80 29 |
| ZALDIBIA | BEASAIN |

## Intereseko Telefonoak

### Ataun

### (Telefono aldatu berriak)

Udaletxea: ................180011
JMB Eskola: ..............180095
Auzoeta Kirol.: ..........180384
Lareo urtegia: ............180259
Medikua:
San Martin: ............180025
San Gregorio: ........180251
Parrokia:
San Martin: ............180024
San Gregorio: ........180046
Kutxa: .......................180022
Lizarrusti: .................180306
GOIERRITARRAren Korrespontsala
(Joxe Begiristain): .....180289

Oharra: Oraindik lor ditzakezu edonoren telefono berriak, zaharrak markatuta.

## Errezeta



**Bittor Gutierrez-ek emana**
**Rubiorena jatetxea**
**Beasain**

ITSASAPO ETA IZOKI MILOSTOAK ALMEJEKIN

**Osagaiak (pertsonako): Rape edo itsasapoa (150 gr.), izokia (150 gr.), 6 almeja, 100 gr. esnegain, cava kopa 1, txipiroi saltsa.**

Moztu rapea eta izokia xerra finetan, gatza eta piper-hautsa bota eta pilatu xerrak bata-besteen gainean, rapea eta izokia tartekatuz. Jarri cava eta esnegaina sutan, bakoitza kazo batean eta irakin arazi gutxitu arte. Nahastu biak eta almejak gehitu, sutan eduki almejak ireki arte. Sartu arrai milostoa labean 180ºC-tara, 6 minutuz. **Mahairatu:** Txipiroi saltsa jarri plater batean, honen gainean milostoa eta almejak inguruan. Estali dena cava eta esnegain saltsarekin.

## Bota bertsoa

### Legorretako Gizon Pikuari eta Festei (Herrikoia)

Gogo eta ilusio handiaz
hasia zaigula festa
lagun artean elkarturikan
bai mutil eta bai neska
algara eta zurrunbilo honekin
hauxe bai orkesta
halako girorikan behintzat
Goierri osoan ezta.

Beasaingoak dagoeneko
beldurtzen hasiak dira
hemen martxa ba omen dago ta
trikiti ta kalejira
zu gustora zaudelakoan
gatoz Udal-atarira
ta ona ez bada ikusmira
lehenbaitlehen balkoitik tira.

Biharko sagardo dastaketa
txorixo ta guztirekin
ostiralerako zikiroa
Bilkoinen nekaezin
larunbatean mozorroturik
goizeko txakoliarekin
igandean errezatu-zazu
fresko xamar egon nadin.


Rubiorena
Bittor eta Aintzaneren izenean,
Beasaingo herria zoriontzen dute.
Erreserba Telefonoa: 88 57 60

GRUPO VITALICID
SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA VITALICIO PENSIONES
ASEGURUAK
Esteban Lasa,3 ☎160486 BEASAIN

HAURREN BOUTIKEA
UNANUE
Nafarroa etorbidea2
tel. 88 71 94
BEASAIN





GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA
Tfonoa: 885500 ORDIZIA





LOINAZ
Okindegia
Opildegia
Oriamendi, 5 - ☎ 16 08 69
BEASAIN

## Debaldeko iragarkiak

### Lana

❒Zure edozein motatako inprenta lanak egingo ditugu GOIERRITARRAn. Dei 889612 telefonora lasai asko.

❒Mekanografia lanak ordenadorez egiten dira. 882843 telefonoa, Eli.

### Salerosketak

❒Goierri dut anuntzio. Euskara lagun duten enpresa, establezimendu, udal, zerbitzu eta profesionalek badute lekurik GOIERRITARRAn. Gure moduluen neurri eta tarifak 41. eta 42. zenbakietako 2. orrian dauzkazu zehatz. Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Dei 889612ra lehenbaitlehen.

❒Karabana salgai, frigorifiko, sukalde, berogailu, e.a.-ekin. 887647 tfnoa.

❒4 hilabete dituen inpresora HP520 salgai 887090 telefonoan.

❒Eskusoinua salgai (120 baju). 884009ra dei.

### Etxebizitzak

❒Pisu amoblatua alokatzen da Altamiran. Dei 1616160ra.

❒Etxebizitza salgai Ordiziako Arana kalean, (sukalde berriarekin). 885584 tfnoa.

## Egutegiak

❒**BEASAIN. Maiatzak 13tik 22ra** bitartean Loinatz Jaiak (ikus Beasaingo Jaiei eskeinitako orrialde bereziak). **Maiatzak 14tik ekainaren 3a bitartean,** Ana Mari Echaten erakusketa Aterpe tabernan. **Hilak 27,** mendiko gaiei buruzko diapositiba emanaldia Aizkorri Mendizale Elkartean. **28,** Ikustaldi gidatua Josetxo Zufiaurrerekin (Ikus Beasaingo eranskin berezia). "Auskalo" taldearekin dantzaldi suspertua Ezkierdi Pilotalekuan 18etan.

❒**ORDIZIA.** "Poltsikozko Ikuskizunak" egitaraua. Lekua: Barrena Kultur Etxea. **Maiatzak 13, 10,30etan:** boleroak, Kubako doinuak, rantxerak eta saltsa, "Erreka" musika taldearen eskutik. **Maiatzak 20, 10,30etan:** "Paparote" taldeak aurkeztuko duen helduentzako txotxongilo ikuskizuna. **Maiatzaren 20tik ekainaren 3ra:** Mari Luz Arenas-en pintura erakusketa.

❒**OLABERRIA. Maitzaren 13an,** Cho-Oyu mendiari buruzko filmeak erakutsiko dituzte Koke Lasa eta Rafa Berasategik, 19,30etan, Kultur Etxean. **Maiatzak 15,** hirugarren adinekoei omenaldia Iurre auzoan: 12etan meza nagusia; 13etan Euskal herri-kirola; 14etan bazkaria.

❒**ZALDIBIA. Maiatzak 15,** igandean, 12,00etan, I Dantza Sueltoko Txapelketa jokatuko da herriko frontoian. 15 urtetik gorako bikoteek har dezakete parte (gehienez 10 bikote). Euskal usariora jantzita joan eta trikitixak joko duen fandango eta ariñ-ariñ bana dantzatu beharko dute. Sari ederrak daude lehen 4 bikoteentzat. Jantzkera hoberena ere sarituko da.

❒**LAZKAO. "Euskaraz bizi" Ikastaroak: Loragintza,** maiatzak 16, 23, 30 (astelehenak), 21etatik 22etara Udaletxeko aretoan. **Oihal-pintaketa,** maiatzak 17, 24, 31 (astearteak) 19etatik 20etara, Gerriko txokoan. **Aho-soinua,** maiatzak 25 eta ekainean (asteazkenak), 21etatik 22tara San Prudentzio eskolan. **Sukaldaritza** (postreak), maiatzak 19 eta 26an (osteguneetan), 19etatik 20etara, Gerriko txokoan. **Dantza,** maiatzak 21, 28 (larunbatak), 15etatik 17etara, Polikiroldegian. Izenemateak: 160282 edo Gerriko Liburudendan.

### Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

**Maiatzak 14-15-16:** Cuesta; **17:** Arriola; **18:** Urbizu; **19:** Atorrasagasti; **20:** Azpilikueta; **21-22:** Atorrasagasti; **23:** Jauregi; **24:** Laurnaga; **25:** Cuesta; **26:** Arriola; **27-28-29:** Urbizu.




### Ordiziako Herri Antzokia:

**Ostirala 13,** 10,15etan: (Terrore-zikloa) "Braindead". **Larunbata, 14:** "Lo que queda del dia", 7,30-10,15. **Igandea, 15:** "Memorias de un hombre invisible", 4,45; "Lo que queda del dia", 7,30-10,15. **Astelehena, 16:** "Lo que queda del dia", 7,30.

### Mendizaleak:

**Ordiziako Mendizaleak: maiatzak 15:** Aranzazu- Tellagorri-Urbia. **29:** Larraitz-San Migel (egun osorako biak).

**Idiazabal K.E.: maiatzak 22:** Urkizu-Mendikuteko gaztelua-Ernio (8,30etan irteera)

ARANDIA Garajea
AUTOEN KONPONKETA
LADA
N-1, z/g Iurre auzoa
Tfonoa: 88 09 47 OLABERRIA

GOENAGA GESTORIA-k
Bezeroei jakin arazi nahi die bere helbide berria:
J. M. Iturrioz, 6 behea BEASAIN
☎ 16 00 65 - Faxa: 16 03 59

## Ordiziako azken azoka



*Arg.: Gema Arrugaeta*

**Bertako produktuak: Nobedadeak:** bertakoak: marrubia, 500 p.; patata 100; kanpokoak: sandia, 150; meloia, 250-275; muxika, 175-300; xixak (100 kilotik gora), 2.00-5.000 p. artean. **Abereak:** Arkuma, 450 pzta.-k; antxuma, 450, untxia, 220. **Landarak:** tipula, 250 zientoa; porrua, 300; letxua, 500 zientoa; aza, 400; ozpinetako piperra, 600; piper morroia-txorixeroa, 800; tomatea, 30-40 takoa; leka, 20 takoa. **Barazkiak:** azaburua, 80-150; azelga 50-75 xorta; baratxuria 75-100 x.; borraja, espinaka, zainhoria, 50-75 x.; babarruna beltza 700-900 k.; gorria eta zuria, 400- 600; letxua 40-80 b.; kalabaza 125-200 k.; patata, 40-50 k.; porrua 85-100 x. **Kanpoko produktuak:** alberretxikua, 290; banana 225-250; kiwia 200-225; laranja 100-260; limoia 150; sagarra 110-195; udara 200-250. **Kanpoko barazkiak:** baba 200-250; horburua 250 dozena; Ilarra 350 k.; patata berria 75 k.; pipergorria 425-475; berdea 200-225; tomatea 250-275; marrubia, 200; tipulina, 125 x.; zainzuria, 350 k.; Padroiko piperra, 175-200. **Arrainak:** bertako antxoa 620; antxoila 1.190; bakailaua, 1.200; itsasoilarra, 1.220; barbarina, 1.240; izokina 1.300; kariokita 860; legatza, 1.850; mediana 1.490; peskadila, 1.290; mihiarraina, 1.580; perlita 490; sardina 480; muxarra, 890; txitxarroa 680; zapoa 1.180-980 -840 (tamainaren arabera).

*Ana Irastorza*

# Deialdiak

III LAZKAO TXIKI Bertsopaper Lehiaketa. Argi-Berri Elkarteak eskutik eta Ordiziako Udalaren laguntzaz, III Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa antolatu da. Lehiaketa 3 mailatan banatzen da: gaztetxoen maila (14 urtez azpikoentzat), gazteen maila (14-17 urtekoentzat) eta helduen maila (1976a baino lehen jaiotakoentzat). Parte hartzaileek nahi adina bertsopaper bidali dezakete. Gaztetxoek, bertsopaper bakoitzeko gutxienez 6 bertso eta gehienez 8 idatzi beharko dituzte. Gaia "Aurten kukuak zer berri?" izango dute. Gazte eta helduek, gutxienez 8 bertso eta gehienez 12 idatziko dute. Gaia libre. Lanak uztailaren laren aurretik bidaliko dira helbide honetara: Argi-Berri Elkartea (Bertsopaper Lehiaketa) Gipuzkoa K. 15. 20240 Ordizia. Sari ederrak izango dira eta saribanaketa Irailaren 12an egingo da Ordizian. Informazio gehiago: 161676 edo 885228 telefonoetan.

ZUMALAKARREGI MUSEOAk bere azken maleta didaktikoa aurkeztu du: Zumakit 3. XIX mendea, bi munduen arteko zubia. Zumakit linea honek Museoa ezagutarazi nahi du hezkuntza zein kultur zentruetan maleta autonomo eta eragileen bidez. Aurkezten den Zumakit 3 honek XIX mendea ondarearen bidez ezagutarazi nahi du. 155 argazki dituzte: trena eta industrializazioa, burgesak eta arrantzaleak, karlistak eta liberalak, eraikin publiko zein pribatuak, ohiturak, komunikabideak, e.a. Argazkiak, Museokoak, pribatuak eta Gipuzkoako gaztetxoek egindakoak dira. Zumakit guztien mailegu modua berdina da: dohain, garraioa eskatzailearen kargu. Argibide gehiago Museora deituz: 889900.

"EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN". Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak izen hori duen programa jarri du martxan aurten ere. Euskaldunberriei familia euskaldunetan euskara praktikatzeko aukera ematea da helburua. Uztailetik irailera bitartean, hilabetez burutuko dira egonaldiak. Parte hartzeko baldintzak: Euskal Herrian erroldaturik egotea, 18tik 35 urte bitarte izatea eta HABEren 6. maila edo antzekoa gainditua edukitzea. Partehartzaileak izendatutako familiaren bizimodura egokitu beharko dira eta 20.000 pzta. ordaindu beharko dute. Logela bat berarentzat izango da eta etxeko lanik egin beharrik ez du. Izena emateko epea maiatzak 16an itxiko da. Informazio gehiago: 426520 tfnoan.


MIRENTXU LIBURUDENDA

Erreformak bukatu arte

Nafarroa Etorbideko 7an aurkituko gaituzue.

Nafarroa Etorbidea, 7 ☎ 88 04 55 BEASAIN

ITZALA

Taberna

Zaldizurreta 3 BEASAIN

Tfonoa: 88 30 24



*Arkaitz Arruabarrena*
*Historian lizentziatua*
*(Gerriko Saria)*

# Olaberriako migrazio-mugimenduen ondorioak

Olaberriako udalerriak azken 30-40 urte hauetan demografia aldaketa sakonak ezagutu ditu: biztanleriaren hazkundea eta ondorengo beherakada bizia, biztanleriaren gaztetzea, etorkin uholdea, erdalduntzea, biztanleriaren banaketa desorekatua, e.a. Aldaketa hauek behar bezala ulertzeko ezinbestekoa da migrazio-mugimenduen azterketara jotzea. Migrazio-mugimenduen bilakaera Olaberriako udalerrian 3 epealditan bana daiteke. 1.go fasea, 1956artekoa da. Garai horretan, nekazal izaerako gunea izanik, migrazio-mugimenduek oso garrantzi gutxi dute, eta bereziki eskualde mailakoak dira. Ezkontza dela eta udalerriratzen diren emakumeak nabarmentzen dira. Ondorioz, udalerriko biztanleriaren bilakaeran ez dago gorabehera haundirik, eta biztanle gehienak bertakoak edo goierritarrak dira.

*"Etxebizitza/lan arazoak, langabezia eta itzultze-migrazioa dira kanporatzen direnen arrazoi nagusiak"*

2. fasea, mende honen erdialdetik 70. urte ingururarte luzatzen da. Fase honetan, J.M. Aristrain enpresak bultzaturiko industrializazio eta bereziki hiritartzearen eraginez, eta nekazal krisia dela eta, etorkin multzo haundia bertaratzen da, gehienbat J.M.A. Pobladuan kokatuz (Ziurraski J.M.A. enpresak etxebizitzak eraiki ez bazituen, etorkinik ez zen bertaratuko, eta egun Iurre auzoa gune industrial bat besterik ez zen izango, Itsaso-Ezkio udalerriko Santa Lutziko industrialdearen modura). Aurreko fasean etorkin gehienak goierritarrak badira, fase honetan Goierri eskualdekoak eta Estatutik etorriak (gaztela-leondarrak eta galiziarrak), eta neurri txikiagoan nafarrak eta Gipuzkoako gainerako udalerrietatik etorriak nabarmentzen dira. Goierritarrak eta gipuzkoarrak, orokorrean, era zuzen batean bertaratzen diren bitartean, gainerako etorkinak zeharkako modu batean. Ondorioz, neurrigabeko hazkundea gertatzen da, ordurarteko hazkunde abiada apurtuz, eta egitura demografikoan aldaketa sakonak eta desoreka sortuz: kopuruan, jatorrian, banaketan, hizkuntzan, adinean, ihardueran, e.a.

Hurrengo fasea 70. hamarkadan hasten da eta gaur egunerarte luzatzen da. Garai honetan Olaberrian, beste industrigune askotan bezala, alde batetik, etorkinen kopurua asko murrizten da krisialdiaren poderioz, eta bestetik, inmigrazio-emigrazio saldo aldaketa ematen da, saldo negatiboa sortuz. Udalerritik kanporatzen direnak nagusiki eskualdeko herririk garrantzitsuenetara eta Donostiara jotzen dute, eta neurri txikiagoan, Nafarroara, Mediterraneo kostaldera, Madrilera eta tradizionalki emigraziogune izan diren Estatuko lurraldeetara. Etxebizitza eta lan arazoak, langabezia altua (jende gaztearen ugaritasunak areagotu egiten du langabeziaren arazoa), eta itzultze-migrazioa (jubilatu ondoren jatorrizko lurraldera itzultzen diren etorkinena) dira, besteak beste, herritik kanporatzen direnen arrazoi nagusiak. Ondorioz, biztanleriaren beherakada nabarmena gertatzen da, eta migrazio saldoen negatibotasuna eta jaiotze-tasen jaitsiera dela eta biztanleria zahartuz doa. Bestalde, Gipuzkoatik kanpoko etorkinen kopurua gutxitzen da (1960an Gipuzkoatik kanpo jaiotako olaberritarrak %37,84 badira, 86an %30,23 dira).

Aurrikuspenak ohizkoak izaten dira demografia ikerketa bukaeran. Baina etorkizunak zer ekarriko duen iragartzea eta zehaztea zaila da. Ziurrasko migrazio saldoen negatibotasunak joera nagusi izaten jarraituko du, baina baliteke hurrengo urteetan Olaberriako berezko edertasuna eta balio ekologikoa dela eta, egoitz gune gisa garrantzia hartzea eta etorkinak erakartzea. Industrializazioaren garaian industriak erakartzen ditu etorkinak, egun, gauzak aldatu egin dira, eta beste faktore batzuk ere badute garrantzia. Dena dela, kontua ez litzateke soilik Olaberriako biztanle kantitatea, baizik eta beraien bizimoduaren kalitatea ere bai.

TXERTAKADI SAGARDOTEGIA
- Norberak haragia eman ezkero ere prestatuko zaio
- Eguerdietan ere emango da aurrez abixatu ezkero, 884798 tfnora
Bixita gaitzazu!
Urtesabel Auzoa ZALDIBIA ☎ 16 13 59

albisu
KRISTALDEGIA
Ordiziako Industrialdea - Pabellón. 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

# Hau ta hura

## Besteek esana

"Goierri ez da batere ezagutzen. Besteak dioen bezala, oraindik "ur sakonak" aztertu gabe daude. Goierriko ur azpian dauden ideia asko ikertu eta landu gabe daude"

**Pello Joxe Aranburu, Gerriko Ikerlan-saridunа.**

*Aurten San Prudentzioren omenezko Prozesioa egin da Lazkaon.* "Berreskuratze hori gauza soziala izango al da? Ikusten bada ezetz, kontu hori historiara pasatu zela, ez dugu berriz egingo. Baina guk uste dugu ez dela hori gertatuko, jendeak erantzungo duela. Gure apostua izan da ohitura hori berreskuratzea herriko patroiari laguntza eskatzeko".

**Joxan Garro, Elizbarrutiko lazkaotarra. "San Prudentzio Jaiak- Egunkaria" -tik biak.**

## ▼▼ Inkesta ▼▼

# Nola ikusten dituzu korrupzio kasuak?







**Iñigo Sarasola**
**olaberritarra**
**17 urte, ikaslea**

Gaizki iruditzen zait. Ez dago eskubiderik, politiko hoiek herriaren alde lan egingo dutela esan eta norbere poltsikoak betetzen dituzte. Beraien artean estaltzen dute eta azpikoa ez da ateratzen. Baina azkenean, kaka beti ur gainera ateratzen da.

**Enrike Lacalle**
**ordiziarra**
**24 urte, langilea**

Pasatu egin dituk. Baina ez dituk orain agertu direnak bakarrik, jende mordo bat zegok hor leporaino sartuta, hizketan hasten diranean hor eroriko dituk... Hemen, gertuago ere, seguru besteen kontura aberasten ari direla, hortan ez zegok dudarik ere.

**Jose Luis Telleria**
**segurarra**
**25 urte, irakaslea**

Aspaldi honetan beste konturik ez dago. Nazka ematen dute horrelako kontuek, bi katuk ordaintzen dute beste guztiek egiten dutena. Hemen ere ziur jendeak poltsikoak betetzen dituela. Entxufeak etabar ere hor daude, azkenean, hori dena soka bat da.


ARDOTEGIAK
B
ELOSEGI
D
E
G
ARACO
S
Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 OLABERRIA (Gipuzkoa)
Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)








MUJIKA
LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

# Ba al dakizu...?

❐ **U**dal Finantziazio Foru Fondoak zeresan ugari eman dute azken urteotan Gipuzkoan eta orain ere badira erreakzioak 93.ari dagokion likidazioa burutu denean. Errekaudazioa %8,5 jeitsi dela eta udalei %13ko media kentzen zaie. Adibidez, Zegamari 11,3 milioi (%18a), Olaberriari 4,5 (%9a) eta Itsasondori 5,4 (%16,6a). Bestalde, denontzat dirurik ez bada ere, Gipuzkoako frontoiak eraikitzeko planean gelditzen ziren azkenak egitekotan dira Altzaga, Baliarrain, Mutiloa eta Orendainen. Era berean, Ordizian rugby zelaia eta Zaldibian polikiroleko pista bat aurreikusi dira.

❐ **G**oierriko Lanbide Eskola izenpean, 8 orri osoko gehigarri publizitario elebidun bat argitara eman zen maiatzak 6ean "DV"-n. Bertan azaltzen denez, CAFek erlazio hestua du Eskolarekin eta ikasleekin; hauek Fabrika Haundiak teknologia berrietan esijitzen duen maila gorenera iristen dira. Bai Juan Gastesik (CAFeko pertsonal-burua) eta bai J.J.Aroztegik (JMA, SA) uste dute lanbide heziketa oso garrantzitsua dela, bai plantilak berritzeko eta bai etorkizunerako. Guraso eta ikasleohien zenbait esperientzia eredugarri agertzen dira, bai eta eskolaren organigrama. Zenbait elkarrizketa datoz, Goilan-eko Gaztañagarekikoa esaterako. Inazio Estensorok dioenez, "Udalek garbi dute Eskolaren gestioa bere gain hartu behar dutela" eta Juan Manuel Barandiaranen ustetan, "Goierri gipuzkoar eskualde estrukturatuenekoa da. Aurten 60 milioi inbertitzekotan direla aurreratu du. Hurrengo alean Goierri L.E.-ri buruzko erreportai bat ekarriko du GOIERRITARRAk.




❐ **A**skapenako kideek "Elkartasunez blai" eduki dute apirilaren azken 15aldian Goierri eta Tolosaldea. Bukatzear dauden Ihardunaldien balantzea egin digute: "harro sentitzen gara azken urteetan inguruan izan diren ekintza internazionalista garrantzitsuenak antolatu eta burutzeko gai izateaz. 3 alor jorratu nahi izan ditugu: munduko zenbait informazio eta salaketa; "3. munduarekin" elkartasun politikoa, merkataritza justua egiteko; kooperazio delakoaren beste ikuspegi bat zabaldu eta era berean %0,7 deritzon laguntza kritikatu. Hauek ziren gure nahiak ekarri genituen gonbidatu eta hizlariekin (Heinz Dietrich, Sinn-Feinn, A-Con-

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
INSTITUTO MUNICIPAL DEL DEPORTE
EASAIN
ANTZIZAR UDAL-KIROLDEGIA

PROBA EGIZU!

MASAJISTA DIPLOMATUA
*Xole Zubeldia*
Euskalerria, 8 ☎ 88 10 52
ORDIZIA

GOI mendi
GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77/88 17 93 - 20240 ORDIZIA

KALITATEZKO ELIKADURA OSASUNAREN OINARRIA
** Janari onak ez du zertan luxu artikulu izanik!*
** Eros bertako produktuak! Hauek eskeintzen dizute kalitate onena.*

colta, Jalikebir, Egido...), erakusketa, bideoekin,...". Beren helburuak lortu dituztelakoan daude, zerbaitetan hankamotz geratu arren. "Beste baterako deialdia luzatzen diogu jendeari: internazionalismoa ez da soilik bulego, kontu korronte eta udaletako komisioetan geratzen, aktiboki parte hartu behar da ekintzetan, salaketetan, mobiliziazioetan, hau baita elkartasun herrikoia egiteko modu zuzena".

❒ Arriarango presa ekainean has daiteke martxan; Lareokoak, berriz, Ataun asetuko du eta Oria ibaiko ur kutsatua diluitzeko balioko du gainera; Ibiurko presa 98an hasi daiteke funtzionatzen eta Amundaraingoa 2000.ean.

❒ 2.000 umek osaturiko abesbatza batek omenduko du datorren azaroan Aita Barandiaran. Kontzertu horretarako entsaiuak martxan daude honez gero.

❒ BEASAIN. Datozen Loinatz Jaiotan hamaika aldaketa entsaiatu behar dira, parte-hartzea areagotzeko. Jai onak pasa! Honekin lotuta, enpresa batek garbituko ditu kaleak festetan. Kale-garbiketa pribatizatzearen aurka agertu dira udal- langileak, zerbitzuaren kalitatea nabarmen jeitsiko delakoan baitaude.

❒Urbieta Tailer eskolako zuzendariaren, udal delegatuaren eta monitore baten dimisioa eskatu zuen HBk. Bere ustez, gertaera bitxiak suertatu dira eskolaren inguruan: bertako zenbait ikaslek etxe partikularretan lan egin dute. Geroztik zenbait espediente zabaldu zaie.

❒Apirileko Udaleko Osoko Bilkurak Lazkaibargo paso-nibela lurperatzea onartu zuen. Alderdi guztiek eman zioten baietza. Obran aurrekontua 600 bat milioi pezetakoa izango da eta datorren urtean hasiko dira lanak.

❒"Ai Geala" euskara taldeak azken lau alkateak bildu zituen mahai-inguru batean. Beraien hitzetan, gauza asko aldatu da 79.eko hauteskundeetatik hona. Garai hartan Udalak 50 bat milioiko aurrenkontua izaten zuen, gaur egungo 1.000 milioitik gorakoaren aldean, esaterako. Hurrengo hitzaldia, plan estrategikoari buruzkoa izango da.

❒ ORDIZIA. "Hezi Kolektibo"a gazte langabetuei lan-merkatuaren berri emateko jaioak, lan-jardunaldi batzuk burutu berri ditu Seguran. Hurrengo zenbakian emango dugu honen berri zabalagorik.

❒ OLABERRIA. "Pryca"rekin akordiorik lortu ez bazuen ere, badirudi hitzarmenen bat sinatu duela bertako "Hiper Olaberria"k "Unialco"ren "Ifa"rekin. Beraiekiko harremanak normaldu ditugunez, hurrengo zenbakian emango diezazkizuegu honen inguruko berriak.

❒ LAZKAO. Arte ederretako Goierriko 11 ikasleek erakusketa bat paratu zuten bertako Udaletxean. Miren Garmendia, Rosa Mari Iturrioz, Asier Mendizabal eta Iñaki Garmendia ordiziarrak, Aran V. Apalategi, Larraitz Sukia eta Nekane Munduate ataundarrak, Maider Urretabizkaia eta Josu Konde lazkaotarrak, Arantxa Aranburu beasaindarra eta Olatz Etxeberria itsasondoarra izan dira beren arte-lanak erakutsi dituen errelebo berriko artistak.

❒Jendez gainezka izan ziren herriko jaiak. Aspaldiko ohitura berreskuratuz, herriko zaindariaren irudia ermittara eramana izan zen. Bestalde, herriko biztanlegoa beheraka doala eta (4.986 azken zentsoan), Udalerriaren kalifikazioa aldatu da eta 5.000 biztanlepeko 3. kategorikora pasa da.

❒ ATAUN. Aldundiko langileek herritar bat tirokatu omen zuten ahuntzak hiltzen ari zirenean, orain pare bat aste-edo. Baserritarra lurrean etzan eta ezer ez zitzaion gertatu. Ataun inguruko mendietan burutzen ari den ahuntz-garbiketak zer esan handia eman du herrian.

HIDALGO
BITXITEGI - ERLOJUTEGI
Legazpi kalea, 4
Tfonoa: 880406
ORDIZIA

DE LA CUESTA
Etxerako eta bestetarako oihal biltegia
Plaza Nagusia,7 — 6 posta kutxa
☎ 880432 — ORDIZIA

ALTZAGARATE JATETXEA
■Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
■Bazkari, afari, meriendak...
88 41 96 Tfonoa — ALTZAGA

KUKO
Jatetxea
—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat
Igandeetan jai, erreserbak salbu (bataio, jaunartze, e. a.)
Berjaldegi Plaza, z/g — ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI

GOIERRI OSORAKO EUSKARA HUTSEZKO KOMUNIKABIDE BAKARRA

# GOIERRITARRA sendotzea behar-beharrezkoa du Goierrik

***Orain dela gutxi piztualdi berri bat izan du "GOIERRITARRA Kasuak". Lana egin eta isilik pasaz eustea nahiago genuke, baina, bidean bagara ere, oraindik ez da normalizatu gure egoera eta gu geu jartzen gara mintzagai.***

## Hamabostekaria: arrakasta

**Irakurle hori:** Orain dela 4 urte t'erdi, hilabetekaria eta "Goierritarrak Kultur Elkartea" sortzerakoan, ilusio handienarekin ekin genion Goierriko euskara hutsezko komunikabide bakarra egiteari. Euskaltzale batzu ginen (Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga, Josune Agirre, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, e.a.) ekimenaren atzean geundenak. Euskal prentsa lokalaren "boom"aren hasierakoak ginen, ez halere udaletxetik irtendako ekimen finantziatua, beste leku askotan bezala.

Goierrirako aldizkari bat milaka lagun batzuk gustora hartuko zuten uste osoa genuen. Uste hori ez da gertatu ustel. Lau "zoro"en proiektua ehundaka batzu gehiagorena bihurtu da denborarekin. Goierriko euskaltzaleen apoioa jaso dugu eta geroztik jende berria sartu da bertako Erredazio Batzordera.

| Udalerria | 93ko dirulaguntzak |
|---|---|
| ALTZAGA | 2.810 pzta. |
| ATAUN | 50.640 pzta. |
| BEASAIN | 374.000 pzta. |
| EZKIO-ITSASO | 15.600 pzta. |
| GABIRIA | 13.050 pzta. |
| GAINTZA | 5.000 pzta. |
| IDIAZABAL | 60.000 pzta. |
| ITSASONDO | 18.480 pzta. |
| LAZKAO | 150.000 pzta. |
| LEGORRETA | 44.460 pzta. |
| OLABERRIA | 33.330 pzta. |
| ORDIZIA | 280.560 pzta. |
| ORMAIZTEGI | 37.050 pzta. |
| SEGURA | 39.000 pzta. |
| ZALDIBIA | 46.770 pzta. |
| ZEGAMA | 42.120 pzta. |
| ZERAIN | 7.110 pzta. |
| GUZTIRA | 1.219.980 pzta. |

*Udalek 1993 urtean GOIERRITARRAri emandako diru-laguntzak. (30 pzta/biztanleko).*

1.000 aletatik 3.500 argitaratzera pasa gara piskanaka. 10.000 irakurle edukitzera bailara guztian eta kanpo (E.H.- Estatuan). Hamabostero. Aurrerapausu horren premia bazegoen. Aldizkariaren maiztasuna bikoiztea esanahi haundikotzat joa izan da. Herrietako kronikekin ere aldizkariak asko irabazi duela eta txalotzen, zoriontzen ari zaigu kondizio guztietako jendea. Irakurleen 50 eskaera iristen zaizkigu 15ero. Udaletxe, elkarte, jende eta erakunde desberdin dexenteetatik beren oharrak, berriak, agendarakoak, iragarkiak gurean argitaratzeko eska eta erreguka ari zaizkigu. Gurea bezain zurea, beste edozein goierritarrena da GOIERRITARRA. Faktore horiek eta gehiagok neurtzen dute hamabosterokoaren arrakasta.

## Diru kontuak: koitak

Urrutiko intxaurrak hamalau, inguratu eta lau. Horixe da bizi izan duguna, ordea, orohar aldizkaria egiten dugunok. Agindu, agindu zaigu (baita eman ere), baina zenbat? ***Ikus bitza irakurleak koadro eta grafikoak, bere herriko Udalak zenbat laguntzen digun, e.a.*** Gure "tarta" txikia da. Iaz arte egiten zen aldizkaria oso baldintza eskasetan egiten zen, baina prentsa lokalari tokia egin genion. Aurreneko urteetan udal batzuk laguntzarik ez zioten ematen euskaldunei -edo zuzendutako zerbitzu publiko honi. Iaztik hasi ziren laguntzak ematen Segura, Zegama eta Ataun esaterako. Aurreneko urtean 15 pzta./biztanleko/urteko eman zuten gainontzeko Udalek; geroztik 30 pzta.koan estankaturik zegoen. Milioi eskas Goierriko herri guztien artean. Laguntza hori finkatua bazegoen ere, ezer gutxi egin zitekeen horrekin.

Gure aurrekontuak bestelakoak izan ohi dira, ordea. Eskerrak Eusko Gobernuaren laguntzetara biltzen garenik baldintza eta paper piloa betez. Udaletxeetatik baino gehiago bildu dugu hortik. Halere ezinbestekoa da Udalen

***(13. orrian jarraitzen du)***





ARRIARAN
karrozeriak

Zure esku jartzen ditu:
⇒ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
⇒ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
⇒ Bankadetan egindako konponketen garantia.
⇒ Garabi-zerbitzu iraunkorra, Tfnoa.: 88 32 53
⇒ Aurrekontua egiten dugu inongo konpromezurik gabe.

**ZATOZ ETA IKUS EZAZU**

# Loinatzak

Berriro ere iritsi zaizkigu Loinatzak. Murumendiko Mariren jaitsierak azken urteotan piztu izan digun ikusmirarako gogoa ase ondoren, ostiral gaueko musika-kontzertuak gaupasa egiteko aitzakia emango dio askori.

*Loinatz bezperan* Loinazko Andre Mariren ermitara igotzen direnak ordea, askoz ere gutxiago izango dira eta nekez gaupasa egindakorik. Eguerdi eta ilunabarreko danborradek, gaueko joaldi nagusian izango dute amaiera. Musika, dantza, jana eta edana, hainbat eta hainbat lehiaketa, sariketa eta erakusketa alboan dituztela. Loinatz egunaren ezaugarrietakoa dugu hori. Jendea ugari, kaleak betean, ekintza barreiatuak, dena salgai eta nonahiko saltzaileak. Loinazko Feri Nagusi haien izpirituak tinko darrai Beasainen. Herri-kirolek eta su artifizialek festa-usain apur bat emango diote egun honi. Gaua beti bezala gautxorientzat.



Arg.: Foto Alzuri

*Loinatz bigarrena* berriz, Loinazko San Martin herriko semearen ohoretan izan ohi da erdia eta gazte eta helduxeagoen laguntaldeena beste erdia. Jandakoa, edandakoa eta dezibelioetan nahiz bultzadetan jasoa guztia batu eta metatzerik balego, hilabete batzutarakoa soinean dugula egiaztatu ahal izango genuke.

*Loinatz hirugarreneko feria,* dantzari eta bertsolariak, baserritartasun eta euskalduntasunaren seinaletzat edo azaldu nahiak, estimazioa hainbateko amorrua ere sortzen du CD-ROMarekin Lizentziatu eta Injineru euskaldunek lanean diharduten egunotan. Horiek geure gauzak dira noski, baina gainerakoak geuretartuago behar ditugula ere ez dago ahazterik.

Lau eguneko ajeak gainean ditugula, asteazkenean lanera, lana dugunok noski. ***Gero zortziurreneko asteburua.*** Ostiral-larunbatetako musikek, kantuek eta mozorroek, nor garen, zer garen eta nongoak garen ahazterazten digute batzuoi. Agian, beren sen eta muinean murgilduta gertatuko dira beste batzuek. Nortasun-kontuak. Sukaldaritza, tiro-lehiaketa, txirrindularitza eta gisako ekintza askoren ondoren, zanpantzar, herri-kirol, erraldoi, kiliki eta dantzarien jardunekin amaituko dugu Loinatz zortziurrena.

Batzuek gutxiegi iritziko diote eta beste batzuek agian gehiegi. Askotxok estimatuko du bukatu izana eta herria bere ohizko bizitzara itzuliko da, izan ere, urtean behin izaten baitira Loinatz jaiak. Eta ezin liteke bestela izan. Ongi etorriak Loinatzetan Beasaina zatozten guztiok.

***Andoni Sarriegi Eskisabel***


*Giro jator eta atsegina*
BASAKANA
ITURRIOZ 11
BEASAIN

PELLO harategia
*Gureganaino etortzeagatik okel goxoaren bila Festa egunak ondo igaro eta aurrez esker mila.*
Mariaratz, 2 BEASAIN

MARI JOSE
MERTZERIA
*Kinkila-denda*
☎ 887267
S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

OYARBIDE
IGARTZA-ETXEA,2
Tlf:88 26 21 - 88 15 96
Fax: 88 77 85
BEASAIN
OLABERRIA MERKATAL Z.
Tlf:16 16 00
Fax: 16 16 02
OLABERRIA

SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ELEKTROTRESNAK
TV - HI FI

## Maiatzak 13, ostirala

**17:** Barraka-Ferien irekiera: autodromoak, zaldiko- maldikoak,... **17,30:** Aldibereko Xake txapelketa Loinazko San Martin Plazan. **19:** Erraldoi, Kilikiak eta Txistularien Udal Banda herriko kaleetan zehar. **19,30:** Sardina-jana Zubimuzun. **20,30:** Loinatz eta Loinatz Txiki abesbatzen kontzertua Parrokian. **22,30:** Mari Murumenditik San Martin Plazaraino jeitsiko da, Jaien hasiera ofiziala, pregoia eta danbatakoa. **22,30:** Beasaingo Martxa, erraldoiak, zangoluzeak, Koskola Txaranga,... **22,30:** Rock kontzertua: Subterranean Kids, Ezin Izan eta Orgasmic Toothpicks.



Arg.: Foto Alzuri

## Maiatzak 18, larunbata

**Goiz partean,** Jai egunero bezala, Udal Txistulari Bandaren goiz-eresi alaia. **10:** Loinazko Andra Mariren Ermitarako igoera, meza Udal Agintariekin. **12:** Igartza Oletatik behera, Haurren danborrada. **16:** Eskuzko eta pala motzeko pilota partiduak Antzizarren. **16,30:** Txirrindulari eskoletako taldeen arteko erloju-kontrako Gipuzkoar Lehiaketa. **17:** Herriko Jokua. **17,30:** Ludoteka Joan Iturralde Plazan. **19,30:** Kalejira Koskola Txarangarekin. **22,15** Beasaingo bandera buru duela Danborrada abiatuko da Igartza Oletatik. **24:** Danborradaren bilkura eta Joaldi nagusia San Martin Plazan. **24,30:** Dantzaldia Haizearekin.

## Maiatzak 15, igandea

**9,30:** XXIV Loinazko S.M. Nazioarteko Xake Lehiaketa CAFeko aretoan. **10:** Kalejira Irungo Hiria Bandarekin. **12:** Erakusleihoen lehiaketako sari-emateak Bareak-en. Sendabelarren erakusketa Zubimuzun. Barea Marrazki Lehiaketa J. Iturralde Plazan. **12,30:** Irungo Hiria Bandaren kontzertua S. Martin Plazan. Erauskin auzotik behera Goitibeherak. **18:** Tony Mercury mago ospetsua J. Iturralde plazan. Txontxongiloak. **18,30:** Herri-kirol probak Barrendain Plazan: Antzizar K.E./Olaberriko Herri K.E. aren aurka. **23:** Caballer etxearen Suziriak. **20:** Dantzaldia Akelarre-kin Eskisabeleneko zabalgunean.

## Maiatzak 16, astelehena

**8:** Prozesioa Loinazko San Martinen baselizara, dantzari, txistulari eta Udalbatzarekin. **10,30:** Meza nagusia bertan. **11:** Umeen parkea Urbialden. **11,30:** Marrazkilo ospetsuen dastaketa. Erromeria Baselizan. La Sallen la-

ZUHAIZPE
PASTELDEGIA, KAFETEGIA, IZOZKITEGIA
Festa on batzuk opa dizkizuegu
Igartza Oleta, 8
Tfnoa.: 88 55 93 BEASAIN

NAGASAKI taberna
"Festa onak pasa!"
☎ 881567
J. M. Iturrioz, 1 BEASAIN

SAIOA taberna
Giro on eta jatorra
"Festa onak pasa!"
☎ 88 06 02
K. Nagusia, 33 BEASAIN

Blues Brothers
BEASAIN


BESTE BAR
OGITARTEKO
PINTXO
KAXUELITAK
S.INAZIO 1 ☎160284 - BEASAIN

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN

# Loinatz Jaiak



Arg.: Foto Alzuri

guntaldeen arteko futbitoko finala. **13:** Koadrilen irteera. **16:** Haurrentzako apar-festa S. Martin Plazan. **18,30:** Kuadrila guztien bilkura. Ondoren, kuadrilentzako apar festa. **20:** Egan taldea Eskisabel-enean goizalderarte.

## Maiatzak 17, asteartea

**10:** Urteroko Feria Berezia L.S.M. eta J.Iturralde plazetan. **11:** Usariozko Haurren dantza soka edo aurreskua Loinazko S.M. Plazan. **13:** Bertsolarien saioa plaza berean. **17:** Euskal Jokoak, J. Iturralden. **19:** Helduen dantza soka edo aurreskua, S.M. Plazan. Ondoren, bertsolariak berriro.

## Maiatzak 19, osteguna

**18,30:** Erretiratuen Gurea Abesbatzaren kontzertua La Salle-S.Josen. **19,30:** Dantzaldia, Zapotxin taldea, musika Rap eta Afro lehiaketa.

## Maiatzak 20, ostirala

**17,30:** Txoronpio eta Pantxi pailazoak J.Iturrale plazan. **19:** Erraldoi eta kilikiak, txistularien kalejira. **20:** Dantzaldia Monterrey orkestarekin S.M.-en. **20,30:** Udal Esku-soinu Orkestaren kontzertua Parrokian. **23:** Berriro Monterrey Orkesta eta Tony Constant bere Mariatxiekin.

## Maiatzak 21, larunbata

**11:** Toka eta Igel txapelketa erretiratuentzako Zaldizurretan. **11:** Sukaldaritza lehiaketa Gernika pasealekuan (Pergolak). **13:** Plateren aurkezpena. **14:** Otordua San Martin plazan. **16:** Aitz-zorrotz plater tiraketa, Suministros Loinazen parean. XLV Loinatz elkarteko txirrindulari proba 2. mailako amateurrentzat. **18:** Teatro Trapero del Rio-ren emanaldia J.Iturralden. **23:** XIII mozorrotuen ibilaldia Barrendainen; ondoren bilkura San Martin plazan, Tumbadito eta Tropicana taldeekin.

## Maiatzak 22, igandea

**9:** Herri mailako xake lehiaketa, Ezkiagako Auzo etxean. **11,30:** Gomazko pilotako pala txapelketa Batzokiko pilotalekuan. **12:** Bake Epaitegi berriaren inaugurazio ofiziala, Martina Maiz kalean. **12,30:** Formula 1ko auto zaharren karabanaren ibilaldia Urbialden, 17ak arte. **17:** Beasaingo Hiria II Golf Txapelketa, Txalaparta Golf zelaian. **18:** Eskualdeko erraldoi, kiliki eta zangoluzen bilkura, dultzaineroak, txistulariak,... **18,30:** Herri- kirol erakustaldia Barrendainen. **20:** Euskal dantzen jaialdia, Ostadar eta Aurtzaka, S. Martin plazan.


GAROISKA
LOREAK, SENDA BELARRAK
ETA DIETETIKA GAIAK
Kale Nagusia, 2
☎ 88 40 16
BEASAIN

XUBER PUB
*Festa onak igaro!*
Zaldizurreta, 5 Beasain

Ñañarri
taberna
*Festak ondo pasa!*
Kale Nagusia 15 BEASAIN
☎88 06 59

PATXI ARANBURU
*Harategi-Urdaitegia*
☎ 880485
J. M. Iturrioz, 1 BEASAIN

AKELARRE
*TABERNA*
*"Pintxo eta kaxuelitak"*
☎ 88 23 12
Igartza Oleta, 12 BEASAIN

Jose Mari Salinas
Auto elektrizitatea
Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak
Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfonoa: 88 21 49 BEASAIN

# Jose Zufiaurre etnografoaren grina: aintzina

***Josetxo Zufiaurre beasaindarra aurre-jubilatu egoeran dago, etnografoa da eta "Etniker" Taldeko partaidea dugu, Gipuzkoako Taldeko Idazkaria eta Eusko Ikaskuntzako diruzain-ordea, besteak beste.***

*Hitzaldiren bat edo beste eman (36. GOIERRITARRAk eman zuen baten berri), Eusko Ikaskuntzan bileretan eskuhartu, eta Beasain ezagutarazteko ahaleginak egiten ditu Josek. "Beasain Festivo"n aintzinako langintzetaz idatzi ohi du, "jendea konturatu dadin lehengokoak ez zirela tontoak.*

**GOIERRITARRA.- Zer dira "Etniker" taldeak?**

**JOSETXO ZUFIAURRE.-** Etniker taldeak D. Joxe Migel Barandiaranek sortu zituen lurralde bakoitzean. Nafarroako Unibertsitateko irakaslea zenez bera, lehena bertan sortu zen; Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoak gero, eta, azkenik, Iparraldean jaio da. 75 bat lagunek osatzen ditugu 5 talde hauek. Urtero Don Joxe Migelek metodologia ikastaroak ematen zizkigun etnografoei; behin berak ikusi taldea prestaturik zegoela ("Anuario de Eusko Folkloren argitaratzen genituen gauzak), eta bere biziko ideari ekin zion: E.H.ko Atlas Etnografikoa. Urtero gai monografiko bat ateratzen da Atlasean: Elikadura, Haurren jokuak, Heriotzaren inguruko gauzak... Gure konpromezua da urtero lan egiteko gai batetan: ikerketak egin baserrietan, hoiek paperaratu, e.a.

**G.-Zure gogozko gaiak ere izango dituzu, bestalde.**

**J.Z.-** Momentu honetan, adibidez, Beasaingo Udalarentzat bertako kaleen izenen historia laburra egiten ari naiz. Udaletxean sartu eta kale-izen bat jartzeko akordioa noiz hartu zen, izenaren nortasuna ikertu,... "Beasaingo Paperak"- en ale bat aterako da informazio horrekin.

**G.- Beasain ezagutaraztea da antolatutako paseotxo gidatu horien helburua.**

**J.Z.-** Hori da. Andoni Sarriegik deituta, Erauskinekin egonda, zenbait larunbatetan egin zitezkeela esan nien. Orain dela 12 urte nire anaiak eta biok herri guztian zehar zutik dauden mugarriak ikusi eta izendatu genituen; datuak hartuz, argazkiak eta neurriak hartuz, zer harri klase zen, detaileren bat idatzirik zeukaten aztertuz, e.a. "Beasain Festivo"n argitaratu hura eta hortik joan naiz herriari jira emanez.

**G.- Gai arantzatsua zen garai batean mugarriena.**

**J.Z.-** Oso zorrotza zen. Badaude oraindik mugarri oso politak. Batipat Domikoko mugarri famatua, Zarate eta Maramendiko tarteakoa, bidez gaikaldetik. Domikokoagatik Azpeitian edo Tolosan galdetuz gero, baserritarrek badakite non dagoen.

**G.- Bitxikeriren bat baduzu?**

**J.Z.-** Bi baserritarrek deitu zidaten behin, bitartekaritza egin nezan, mugarria mogituta zegoela, ez zegoela esanez. Ni ez naiz trebea erabaki horiek hartzeko eta enkarguari uko egin nion. Mugarriak baserrien edo herrien arteko mugak dira; baina badaude beste batzuk, Konkordi-mugarriak esaten zaienak, horien gainean asko dakite segurar eta zeraindarrek: Altzaniako Partzoneria Gipuzkoa eta Araba artekoa da, baina larreko ardiek ez dute mugarrietaz ulertzen, eta Nafarroako

**GOIERRI BODEGOIA**

*Eguneroko bazkari eta afariak*

Nagusia, 18 ☎ 88 00 00 BEASAIN

JVLKI
GOZODENDA
Nagusia, 11
☎ 88 82 37
BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari, ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN

KULUSKA
LURRAZPIKO JAIA !!
ARANA, 1
TEL. 889388
BEASAIN

mugara iristean ezin esango zaie makilarekin jira egin eta Gipuzkoara bueltatzeko, utzi egin beharko zaie beren larrean mantso-mantso jaten, piska batean aurrera joaten. Hor konkordi batzuk daude eta mugaz bi aldietatik, naparrak Gipuzkoara eta gipuzkoarrak Nafarrora sartu daitezke. Horregatik daude Nafarroa barruan Gipuzkoako mugarriak eta alderantziz. Neurriak ere hartzen dira inork abusatu ez dezan, beraz. Otzaurteko gaineko mugarriak, esaterako, oso interesanteak dira, eguzki eta halako sinboloak labraturik dituzte.

**G.-Barandiaran hil zen; bere irakaspenak bizirik daude?**

**J.Z.-** Bai, eta urte askotan bizirik egongo dira. Don Joxe Migel izan zen Europan lehenbizikoa kongresu batean esan zuena: "Gu joaten gara trikuharri edo leizezulo batera eta han diren aztarna guztiak hartzen ditugu estudiatzeko. Hain harrosko izan gabe, ez ote genuke erdia bakarrik miatu beharko eta beste erdia gerokoentzako utzi. Haiek beharbada teknika hobeak ekarri eta gu baino erabaki zehatzagoak hartuko dituzte". Berehala onartu zioten eta gaur egun horrela egiten dira miaketak. Don Joxe Migeletaz zer gehiago esango dugu?, aparta zen eta!

*Jon Mikel Arano*



*Ilobarekin Argarbi izeneko Aralarko trikuarrian (D. Joxemielek aurkitu zuen I. trikuarria).*

## Beasainen jira-biran

Beasaingo hainbat txoko eta beren kultura eta historia-ezaugarriak ezagun arazteko, zenbait bisita gidatu antolatzen hasi da "Ai Geala" euskara taldea. Momentuz bi bisitaldi antolatu dira, lehena maiatzak 7an Barrendaingo plazatik irten zelarik. Hurrengoa hilaren 28rako dago anuntziatua, leku beretik, ordu berean irtengo delarik.

Josetxo Zufiaurreren laguntzaz, honako lekuak bisitatu ziren: Arriarango urtegia eta Nestor Basterretxearen eskultura, Astigarretako gartzela, garbilekua eta eliza, Trikuaizti I eta II tumuloak, Antxintxurdiko mugarri berezia eta harrobia, San Gregorioko baseliza, Matximentako Ibai- Eder-ko urtegia, Igartzola, lau herrietako mugarria, bertako artisautza, e.a. Bigarrengoan, Larrarteko trikuharria izandako lekua, mugarriak, Urresparatze, Azarikome gaztelua, Zarate, Domikoko mugarria, Maramendiko trikuharriak, Atxipikohaitza, Zilarriturri, karobizuloa, txondarzuloak, Damazuloa, Zarate e.a. ikusiko dira. Hamaika xehetasun eman ditzazke gizon puska honek, baita galtza-motxetan ere, seriotasuna galdu gabe ordea.


ANZIZAR, S. A.
Autoelektrizitatea eta mekanika
Volkswagen taldea
Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

KOIOTE
TABERNA
Zaldizurreta BEASAIN
Etxezarreta k. ORDIZIA

JUANITA ARANBURU
OINETAKOAK
Kale Nagusia, 40
☎ 88 01 27
BEASAIN

ATERPE TABERNA
ARTE ERAKUSKETA ARETOA
Porteria auzoa
☎ 884666 BEASAIN

LOPETEGI
AUTO ESKOLA
GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK
Igartetxe, 2 ☎ 882174 BEASAIN
Oria Kalea, 14 ☎ 651117 TOLOSA

# Festa onak pasa!



**BaiBai** Pub

*Beasaingo festetarako giro berria*

*Zaldizurreta, 3*
*BEASAIN*

BITUPRENE IRAGAIZKETA SISTIMA
PLASTIKO, BARNIZ, ESMALTE ETA PINTURA
MOTA GUZTIETAN ESKEINTZA ZABALA

**Dinex** s. a.

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3 zkia.) BEASAIN
Tfnoa.: 88 93 50
Faxa: 88 06 88

**ARRANO**
**Taberna**

***ogitarteko eta pintxoak***

☎ 88 74 47
Kale nagusia,12 BEASAIN



**AZURMENDI**

***Harategi - Urdaitegia***

San Inazio, 6 ☎ 16 16 74 BEASAIN

**OIARBIDE**
**OINETAKOAK**

Laskurain, 12
☎ 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14
☎ 16 04 34
BEASAIN

**Levi's**

***Zure bakero denda***

☎ 88 94 09
S. Inazio, 1 BEASAIN



**eredu** S. Coop.

Poligono Industriala, z/g
LEGORRETA
97 p.k. TOLOSA
☎ 806100 Faxa: 806374
Telex: 36663 ERED E

ORAIN DELA URTE MORDOXKA...

# Izan dira Festak Legorretan eta ez nolanahikoak



Arg.: Manolo

Egunerokotasunetik aldegiten lagunduko diguten soinu eta far-algarak dira entzungai dagoeneko herriko bazterretan. Hasiak dira asteazkenetik iganderarte iraungo duten Herri Jaiak. Egitarauari dagokionez, berritasunik lortzea gauza erreza ez izanik, aurtengo egitaraua ere ezer gutxi aldatu dela esan genezake. Aipagarriena, asteazkeneko bertso eskeintza Gizon Pikuari. Eta horra, ostiralerako eragingarri izan daitekeen "Dut" eta "Beti Mugan" taldeen rock kontzertua, zer esana emango duena agian.

Baina Legorretan egon izan da festa eta ez nolanahikoa. Orain dela urte mordoxka batzuetako festataz ari natzaizue. Orduan herriz-herri egiten zen festa eta oraingoak baino hobeagoak zirela esaten duenik bada. Gure zaharrei galdetu besterik ez dugu edota hain zahar ez direnek ere badute zer esanik. "Joxe Urki"rekin izan dugun elkarrizketatxoan zer esan digu: *"Orduan Festak aberatsagoak hituan, herrikoiagoak, alaiagoak eta gehiago gozatzen genduan. Oraingo gazteek berriz, ostirala, larunbata eta igandetan ateratzen dituk. Orduan etzan halakorik"*.

Eta parte handi batean behintzat, aldaketa horren errudun "Saladefiestasak" direla dio Joxek. *"Franco-garaian festak goitik behera antolatzen hituan. Hau da, udaletxeak antolatzen zizkian eta gazteek ezin zien parterik hartu. Urte batean boikota egin nahi genian eta Guardiazibilak ekarri zizkien"*. Orain dela 20-25 urteko kontuak dira hauek. *"Orduan gazteek ez zien aukerarik festetan parte hartzeko, orain bai, baina nahiago die taberna zuloan sartuta egotea"*. "Kabezudo"z edo buru-haundiz jantzita ibiltzen direnei ordaindu beharra dago orain, hortxe dugu adibide garbia.

Festa egunetan erropa berriena edo hoberenarekin ateratzen ziren, korbata eta guztirekin. Joxe berak ere janzten zuela aitortu digu. Meza Nagusiak bazuen arrakasta; hau behin bukatu ondoren, alkatea eta kontzejalak txistulariekin ateratzen ziren elizatik eta ondoren Udalak eskeinitako kontzertua izaten zuten. Garai hartan arrakasta dexentekoa zuten "Orquestina Los Alegres"koak etortzen ziren herrira. Eta gogoan ditu oraindik Joxek garai hartan ezagunek ziren "Sitio de Zaragoza" eta "Islas Canarias" bezalako bolero, bals eta pasodobleak. Dantzari trebea izan behar zuen Joxe.

Tarteka trikitixa ere jotzen zuten. Frontoia gainezka egoten zeneko hartan, apaizak galerazi egiten zuen helduta dantzatzea. Orduan herriko jendea ez zen atrebitzen lotuta dantzatzera. Baina, halako batean, bakarren batzuk heldu xamar zeudela ikusirik, joan zitzaion apaiza alkatearengana eta honako hau izan zen alkatearen erantzuna: "Hemen nik eta zuk han (elizan)". Eta handik aurrera bikoteak hasi ziren gehiago hurreratzen. *"Ordubiterdik, hirurak aldera etxera joan beharra genuan eta azkeneko piezarako ahal bazan neska bat hartu, 'neska laguntzak' egiteko"*.

Azentzioko Jai-egunetatik kanpo ere, igandero izaten zen festa "Olaso" tabernan. *"Zenbat jende maitemindu ote huan, jendez gainezka egoten huan terraza. Orduan "agarratuak" dantzatzen hituan. Gero bandeja pasatzen huan soinujolea ordaintzeko. Nahiz eta Udaletxeak banda ekarri, egun guztian egoten huan festa "Jainko-Beltza"neko terrazan"*. Aurreneko etxebizitzako bi leihatiletatik hamaika aldiz abestu izan zuten Uztapidek eta Lasartek...

**Xabier Glez. Ezama**


**GUADALUPE**
**JATETXEA**
***Eguneroko bazkariak***
Guadalupe auzoa
☎ 806385 LEGORRETA

**ARIZPE Lantegia**
***Pedro Mujika***
Soldaketa elektriko eta autogenoan lanak
☎ 80 60 98
Eguzki Etxea LEGORRETA

**OLASO Taberna**
***Giro jatorra***
**Guadaupe Auzoa**
**LEGORRETA** **☎ 806355**

# Legorretako jaiak

## Egitaraua



Arg.: J. L. Etxeberria

**Maiatzak 11 asteazkena: 20,00,** Jaiei hasera emango dien suzirien jaurtikete; Gizon Pikua udaletxeko balkoiean jarriko da. **20,15,** Erraldoiak, buruhandiak eta kalejira dultzainarekin. **21,00,** lagunarteko afaria Bilkoinen. Ondoren dantza saioa "Nekaezinak" txarangarekin. **12,00,** bertso eskeintza udaletxeko balkoiean jarritako Gizon Pikuari.

**Maiatzak 12 osteguna: 10,00,** diana dultzainarekin (hurrengo egunetan ere ordu honetan). **11,00,** Meza nagusia. **12,00:** Erraldoiak, buruhandiak, trikitixa, herriko Lazkanoiturburu lehengusu trikitilariek lagundurik. **12,30,** pote, igel eta toka txapelketa herriko jubilatuen artean. Une berean, sagardo-dastaketa eta txorixo- jatea sagardo-erara. **17,30,** herri-kirol desafioa herriko bi laguntaldeen eskutik. Ondoren kalejira herriko Lazkanoiturburu lehengusuen eskutik. **23,00,** dantza- saioa Akelarre taldeak alaitua. **24,00,** Eskualde mailako 8. Irrintzi Lehiaketa udal pilotalekuan. Epaimahai bat izango da eta irrintzi hoberenen artean sariak banatuko dira. Herriko 1.arentzat sari bat izango da. Ondoren eta goizalderarte, dantza saioa Akelarre taldearen eskutik.

**Maiatzak 13, ostirala: 9,30etatik 12,00etara,** Mini Karting-a eskolaldean. Monitoreak izango dira eta herriko nahiz kanpoko haurrek har dezakete parte. **12,30,** Herriko soinujole eta dantzari gazteen saioa. **14,30,** zikiro jatea Bilkoin-en, Nekaezinak Txarangarekin. **15,30etatik 18,00etara,** Mini Karting-a. **19,00,** Haur Danborrada txarangak alaitua. **23,00,** Rock kontzertua: Dut eta Beti Mugan taldeak.

**Maiatzak 14, larunbata: 10,00etatik 12,00etara,** haurrentzako jokoak. **12,00,** txakolin dastaketa Nekaezinak-ekoekin. **13,00,** herriko XII Paella txapelketa. 14,00etan amaitzen da prestatzeko epea. **14,30,** lagunarteko herri bazkaria plazan, txarangak alaitua. **16,00,** txirrindulari jubenilentzako XL Legorreta Txirrindulari Proba hasiko da (Euskadiko Txapelketa). **16,00etatik 18,00etara,** Puzzlearen jokoa gaztetxoentzat. **18,45,** Play Back txapelketa. **23,30etatik goizaldera,** dantzaldia Festatxo taldearen eskutik. **24,00etatik aurrera:** Mozorro gaua, epaimahai kalifikatzailea udaletxe azpian egongo da. Ondoren sari banaketa.

**Maiatzak 15, igandea: 12,00etatik 14,30etara,** kalejira Lazkanoiturburu lehengusuek alaitua. **17,30,** Pilota Partiduak: (afizionatuak) Olazabal-Aierbe, Arbilla-Mujikaren aurka; (beteranoak) Atano XII-Atano XIII, Ansola-Esnaolaren aurka. **20,00,** kalejira Nekaezinak txarangarekin. **22,30,** Gizon Pikuaren ehorzketa. Jaiei amaiera on eta "alai" bat emateko kandelekin eta arropa beltzez jantzita azaltzea eskatzen da.


GOIHERRI, S. A.

PAPELAREN MANIPULAKETA

San Migel, z/g
Tfnoa.: 80 61 90
LEGORRETA

LASA EGURRAK, S. L.
Zerrategia

☎ 80 60 22 Berostegi auzoa
Faxa: 80 65 56 LEGORRETA

Sagardotegia
aulia
Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

# "Goierritarra" bera

laguntza eta hauekiko elkarlana (fruitu hobeak emango al ditu aurrerantzean!). Eta eskerrak publizitateari. Hortik bizi gara, neurri batean. Lana beltz eginda, asko saiatuta lortzen da publizitatea. Are gehiago krisi-garaiotan. Aurrekontuaren erdia edo gehiago publizitateak estali ohi digu. Mesede galanta egiten digute publizitate-emaileek! 14 "kilo"ko aurrekontua dugu aurten. Udaletxeetatik 3 espero ditugu (%21a) --onartuko al digute--. 2 milioi (%15a?) beste istituzioetatik eta gainerako 9 milioiak (%65a) publizitatetik ateratzea nekeza izango denez, defizita geratuko zaigu. Nork estaliko digu "zuloa"?




*93 eta 94ko diru-sarreren banaketa*

## Gaurko egoera...?

"Arrasate-Press", "Berrigara", "Ttipi-Ttapa"k, herri- prentsak orohar egundoko montaiak eta laguntzak dituzte haseratik-edo. Atzetik erakunde edo euskara talde bultzatzaile handirik ez genuenez, udaletxeetako ateak jo genituen bere garaian. Norbaiten erantzunkizunekoa izan beharko zuen GOIERRITARRA. Udal-jendeekiko 2 urte t'erdiko eztabaidak/hausnarketak bukaturik, GOIEKIn dago gaia orain. Udaletatik aurten jaso beharreko 3 milioiak jasotzeko, aurretik zuzendaritza gaian ados jarri beharrean gaude beraiekin. Gure epaimahaiak azterketak egin eta puntuatu ditu zuzendari-hautagaiak, eta zai gaude Udal ordezkariek zer esango.

Politiko desberdinak mokoka aritu dira orain dela gutxi ere beraien artean, hamabostekaria aitzakitzat harturik. Eta gu tartean (4 liberatu egun guztira), kuestionaturik-edo, diru askorik gabe, 15erokoaren epeak eta inprentaren fakturak ezin atzeratuz, aseguru sozialik gabe, militantzian... beti bezala. Dohaineko aleen jasotzaile horrek jakin ezazu, aurten 3 milioitik gora ordaindu beharko diogula inprimategiari; eta 800.000tik gora posta zerbitzuari. Nola erantzun behar diegu harpidedun eta apustu berrien eskariei?

**Zure Udal/herriak egin beharko luke zerbait gehiago denon alde.**

Aldizkaria ez da berez egiten eta banatzen. Gauza asko daude lotu beharrekoak: aurrena finantzak, publizitate eskean aritu, musu-trukean dabiltzan kolaboratzaile eta herrietako kronista jatorren sarea lotu eta aldizkari txukuna, erakargarria egiten saiatu. Idazlea bezain inportantea baita irakurle goierritarra. Gainontzean, ezin esango da honez gero medio hau zabala eta inpartziala ez denik; aspalditxotik erakutsi duenez, irakurri besterik ez dago, ez da inongo ideologiaren mezulari eta eskualdeko errealitate desberdinak bertan agertzea beste helbururik ez du, informatzea. 5.000 aleekin 15.000 irakurle eukitzea espero dugu laister.

Bien bitartean, Goierriko herri guztiek dauzkate beren kronikak ziurtaturik. Bildu, berotu eta poztu ditugu hainbat bazter orain arte. Oraindik periodistikoagoa izan dadila, gehiago eman dezagula (gehigarriak, orri gehiago, koloretan,...) eskatzen digu Goierrik. Ez genuke hasi nahi diru-eskean irakurleei ez eta publizitatearekin betetzen aldizkaria (%70a testua dator oraindik). Ulertu nahi gaituzun horrek badakizu zer dagoen hemen: GOIERRITARRAk ezin dizue hutsik egin hainbeste laguni!

***GOIERRITARRAko langileok***

BEGUÉ REDONDO
JANARIDENDA
*Berezitasuna janari eta fruitutan*
Urdaneta 39 .................................... ORDIZIA
Nafarroa Hibilbidea 27 .................................... BEASAIN

GOR LUR
*Taberna*
Senpere Merkatal Zentrua
☎ 16 03 99 BEASAIN

# Goierriar gutxitu fisikoak eskiatzen

Elbarrituen eskia oso jende gutxik ezagutzen duen kirola da, ez eskia ez delako ezagutzen, baizik, elbarrituen kirol guziek bezala, behar adina ez delako zabaltzen. Norbaitek galdetuko du hankarik gabe nola eskiatu daitekeen, eskiak hanka azpian jartzen badira. Jende honek aulki berezi bat prestatua izaten du eta bere azpian eskia jartzen da. Orduan bere gorputzaren bitartez eta eskuetan eramaten duten eskidun bastoi batzuekin kontrolatzen dute silla hori.




Apirilaren 8-9-10etan Port-Aine eski estazioan izan ziren Kataluniako txapelketa "open"etan, 3 goierriarrek hartu dute parte paper polita eginez. Goierriarrok Beasaingo Jabier Imaz eta Jesus Anjel Garcia eta Lazkaoko Ekain Arruabarrena izan dira. Gutxitu fisiko bakoitza, arazoaren arabera, kategoria ezberdinetan sailkatua izaten da. Adibidez, hanka bat falta duten gutxituek LW2 kategorian parte hartzen dute, belaun beheran mozdura bat duen jendea LW4 kategorian, hankarik gabeko jendea edo gerritik beherako paralisia duten jendea LW10 kategorian e.a. Jabierrek LW2 kategorian hartu zuen parte, Garciak LW10ean eta Ekainek LW6ean. Jabierrek urte asko daramatza eskiatzen, baina bai Ekain eta bai Jesus Anjel ere aurten hasi berriak direla kontutan hartuz emaitza oso positiboak izan dira.

Ekainek Gigante proba ez zuen amaitu, 9. atean kanpora irten bait zen, baina Slalon proban 1. manga txarra egin eta gero 2. manga ikusgarria egin zuen 3. denborarik onena lortu zuelarik. Bi mangen amaieran 5. postuan sailkatu zen, eta konbinatuan 7. Jesus Anjelek ez zuen inongo probarik amaitu, bi probetan atera egin baitzen. Jabierrek proba itxurosoa korritu zuen, nahiz eta ohorezko postuetan ez amaitu. Eduki zituen kontrakoak, momentu honetan Espainian den onenetarikoa zela kontutan harturik. Bi 5. postu egin zituen, neguko joko olinpikoetan egon diren espainiar taldekideen atzetik. Emaitza oso positiboak beraz kirolari hauentzako.

Aipatu baita ere Gipuzkoan sortzen ari den kirolari taldea. Lehen aldiz, gutxitu fisikoentzako eski ikastaro bat antolatu zen otsailean Candanchun; Gipuzkoa osoko 7 neska-mutil izan ziren bertan. Zazpikote hau izan da Port-Ainen lehen aldiz, emaitza positiboekin, esan bezala. Datorren urtean, Gipuzkoako gutxitu fisikoen eski federazioak beste eski- ikastaro bat antolatuko du eta hemendik goierritar gutxitu fisiko guziak animatu nahi nituzke eskiatzera eta ondo pasatzera, azken finean hori bait da bilatzen dena.

✍ *Aitzol Arruabarrena*

**gaur express** *mezulariak*

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfonoa: 88 87 02

BEASAIN

ALUMINIOS AE EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegietarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

# "Seaska" Haurtzaindegia: umeen heziketaz kezkaturik lanean



Familiari laguntza eman asmoz sortu zen orain 15 urte inguru aurrez lan asko egin ondoren, Beasainen daukagun *Seaska* Haurtzaindegia. Zerbitzu bat izateaz gain ordea, gaur egun Haureskola izatera pasa da, garrantzia gehiago ematen bait zaio umearen heziketa eta garapenari, familiari eskaintzen zaion zerbitzuari baino. Hala ere, bi funtzio hauek askotan batera ematen omen dira, bainan beraiek argi daukate beren helburu nagusia umeen heziketan datzala.

3 urte bitarteko haurrek osatzen duten 1. zikloak berebiziko garrantzia omen du, garapen erabakiorra ematen bait da etapa horretan. Haurreskolek hezkuntza funtzioa betetzen dute ume hauen behar guztiei erantzunez. Behar hauek, fisiko, adimen eta afektuzkoak izaten dira, gorputz osoaren bidez jartzen bait da haurra inguruan duen munduarekin harremanetan. Ezin omen dugu bereizi beraz, haurraren gorputz zainketa prozesu hau, helduek eta kanpoko inguruneak beraiengan duten eraginagatik. Helduek paper garrantzitsua jokatzen dute beraz ume hauen gain. Era honetan lortuko dute umeek piskana-piskana beren nortasunaz jabetzea.

Jolasek ere paper garrantzitsua dute umeen heziketan, inguruan duten mundua ezagutzeaz gain, euren sentimendu eta hunkipenak adierazten ere laguntzen bait die. Hezitzaileek, beharren araberako materiala aukeratu eta lekugunea antolatzeaz gain, jolas honetan partaide izango dira era berean. 0-3 urte bitarteko haur hauen hezkuntza-eginkizuna beraz, etapa honek eskatzen dituen beharrak aintzat hartuz bete behar dira, eta ez, sarri gertatu izan den bezala, geroagoko ikasketen prestakuntza gisa. Geroari begiratu gabe ere, etapa bakoitzean ba omen dago zer ikasia.

Beasaingo Seaska bat dator Euskadiko Eskola Kontseiluak gomendatzen duen honekin. Eta gure herri honetan, LOGSE legeak agintzen duen bezala, 0-3 ziklo hori bere horretan betetzen duen zentro bakarra dugu. Haurtzaindegi honek badu Udaletxearekin harremanik, bainan gerora hau ez da nahikoa izango, izan ere, zerbitzu honen titularitatea Udalaren esku gelditu beharko da. Zortzi lagunek eramaten dute aurrera 64 umez osaturiko haurtzaindegi hau. Ume kopurua azken urteetan gutxitu egin bada ere, beraien zerrendetan kopuruak gora egin du. Goizeko 7-etatik arratsaldeko 6,30-etara bitarte, ume guztiok ematen dieten lanari gustora egiten diote aurre. Azken batean familia handi bat bailiran sentitzen bait dira eta umeak ere gustora aurkitzen dira giro horretan.

Aurrerantzean ere, orain arte emandako pausuak izango dituzte oinarri Seaskakoek eta saiatuko dira, ingurukoak ere, ume hauen heziketaren garrantziaz ohar daitezen.

✍ ***Nekane Altuna Angiozar***

*Trio*
**Boutique**
☎ 88 99 70
Nagusia, 16 BEASAIN

**J. MUJIKA**
**HARATEGIA**
K. Nagusia 16. ☎ 881832
Gipuzkoa K, z/g ☎ 880878
ORDIZIA
Nafarroa Etorbidea, 31
☎ 880488
BEASAIN

# Kirikixu irratia, Lazkaoko irratia



San Benito Ikastola 1992-93 ikasturtean hasi zen irrati bat sortzeko ideia lantzen. Helburuen artean bi behintzat argi zituzten: hizkuntza modu atseginean lantzeko beste bide bat jorratu nahi zen alde batetik eta irratiaren teknologi modua praktikoki, erabiliaz, ezagutarazi nahi zitzaien umeei, bestetik.

Helburu horiek gauzatzeko, piskanaka-piskanaka, oinarrizko tresneria prestatzen hasi ziren: handitzeko aukera eskaintzen duen irrati modularra. Iaz jada BBBko ikasleek beren frogatxoak egin zituzten, jarraipenik gabeko irratsaio batzuk prestatuz. Eta aurten hasiak dira lanean serio, astero-astero saioak ematen. OHOko 6. mailatik hasi eta BBko 2. maila bitartekoak, txandaka, izaten dira irratsaioen arduradun. Talde arduraduna astean zehar, euskarako eskolorduetan, herriko informazioa jaso eta larunbateko emanaldirako prestatzen aritzen da. Albisteak, lehiaketak, norbaiti eskainitako abestiak, elkarrizketak, musika... denetik piska bat duen ordubeteko saioa osatzen dute.

Orain arte egindakoarekin oso gustora daude, ume eta gazteak gogoz eta arduratsu ari bait dira lanean, geroz eta kalitate hobea lortuz. Larunbatero eguerdiko ordubatetatik ordubietara, FMko 107.8an entzun dezakegu kirikixu irratia. Eta entzun bakarrik ez, norbaitek informazioa eman nahiko balu, Ikastolarekin harremanetan jarri eta gustora hartuko dute. Irratiko telefonoa: 88 18 16 da.

## Saridunen bila

Elkarrik festetan eginiko txirrindu baten zozketako zenbaki saritua: 1877

Herri Batasunaren Tonbolakoak berriz: 708, 693 eta 443

✍ *Mari Joxe Madariaga*
*Argider Mujika*

Ford
MUJIKA



BEASAIN ☎ 88 74 00

*Ana Belén*
ILEAPAINDEGIA
Gurutze, 2
☎ 88 26 31 LAZKAO

HEGOA
TABERNA
Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

Zurgindegi mekanikoa
JOSE M. YARZABAL
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA
Tfonoa eta Faxa: 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK

# Gabillene, Fundazioaren esku

Eskola berria egin zenean, Udalak jarri behar izan zituen lurrak. Lur hauek Gabillenekoak ziren. Harrez gero, eta Gabilleneko jabetza edo honen erabilerari buruzko ezadostasunen artean, lur hau ordaindu gabe izan du Udalak. Orain, prezioa elkarrekin kontsensuatu ondoren, gaur egun ordaintzen ari den metro karratuko 1.300 pezetan, ordaindu egingo dio Udalak zor hura, Gabilleneko jabetza duen Fundazioari; guztira 7.280.000 pezeta. Hala erabaki berria du Udalbatzak, EA, EAJ eta EUEk osatutako Gobernu Batzordearen proposamenez. HBk kontrako botua eman zuen. HB, zorra ahaztu, Gabilleneko patrimonioa udaletxearena izan zedila, eta gestioa berriz, Udala eta Parrokiaren artean bideratzearen aldekoa zen. Gainontzeko alderdien ustez, Jabego Pribatu batekin garai baten hartutako zorren ordaintze-konpromezuarekin bete besterik ez da egin eta ez dago Udalaren esku, ondare hoien gestioan partaide izan ala ez.

Hain zuzen ere, eztabaida hoien ondorioz eta Eusko Jaurlaritzaren aholkuz, iaz sortu zen Fundazio Benefiko Pribatuaren gain izango da hemendik aurrera, Gabillene etxea eta gainontzeko ondareen erabilera. Fundazio honek zortzi lagunez osatutako Patronato



*Gabillene etxea* — *Arg.: Joxe Begiristain*

Junta bat du: Karmeldarren Kongregaziotik ordezkari bat, Gotzaitegitik beste bat, San Martin Parrokiako bikarioa eta katekesia, gaztedia eta ekonomi komixioetatik ordezkari bana, eta Joxemiel Barandiaran Eskolako zuzendaria eta Eskola Kontseiluko batzordekide bat.

## Sketch lehiaketan irabazle

Euskadiko Kutxak antolatutako II. Sketch lehiaketan, Joxemiel Barandiaran Eskolako 8. mailako ikasleek jaso dute lehen saria. Euskal Herriko edozein ikastetxeko OHO nahiz BBBko ikasleek har dezakete parte bideogintza lan honetan. Aurtengoan, etxetik berandu atera ondoren, gelara irakaslea baino lehenago ailegatu nahi duen ikasle baten ibilerak antzestu dituzte Ataungo eskolakoek. Antzesle guztiak ikasleak dira eta aikatutako lehen saria eskuratzeaz gain, antzeslerik onenaren sari berezia ere Atauna ekarri du hoietako batek, Eneko Dorronsorok, alegia. Azken honek bideo kamera bat izango du berarentzat eta gela osoko ikasleak berriz, bost egunetarako Belgikara joango dira aurtengo oporretan, sketch onena moldatzeagatik.

Ohi bezala, notizi onen iturri oraingoan ere eskolumeak. Zorionak, eta zuen lan hori guztiok goza dezagun bideak egin itzazue azkar-azkar!

## Aiaugaldeaundia, erortzeko arriskuan

Markesarena den Aiako Aiaugaldeaundia baserriko maizterrak bertatik alde egin beharrean dira. Baserria, goitik behera erortzeko arriskuan dago aspalditik, mendi aldeko lurrek mugituta edo. Bertan bizi den 83 urteko Balentina Zeberio andreak, gauza honen gainean jakitun, nostalgiaz agertu digu garai baten hiru bizitza ere izan zituen baserriaren egoera. Orain, ia bizitza osoa bertan emana bata, eta jaiotetxea izan dutenak besteak, Aiaugaldeaundia utzi eta berea duten Aiako plazako Begoenea etxera joango dira laister.

*Joxe Begiristain*




OSTATU

ERRIOXA jatorrizko izena

*Goierriko banatzailea:*

SUKIA

☎ 88 16 70

Lizarraga baserria

ZALDIBIA




BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara 16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik, 14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerria Kalea ☎ 88 04 15 ORDIZIA

Industrialdea ☎ 16 07 07 OLABERRIA

## ITSASONDO

# Herri Eskolako berritze lanak

Hasi berriak dira Itsasondon bertako herri eskolako berritze lanak. Herri eskolan, gaur egun eskolaurretik hasi eta 8. mailararteko ikasketak ematen dira. Bi eraikuntzatan banatuta daude gelak, herrian "Goiko-kale" izenez ezagutzen den tokian, eleiza inguruan. Eraikuntzak ongi daude kanpotik, baina barruko egitura erabat zaharkitua geratu da, urte askotan ez bait da ezer askorik egin.



*Goiko-kaleko kaskoa  Arg.: Gema Arrugaeta*

Proiektuak 20 miloi pezetako aurrekontua du, eta Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza sailaren bitartez, eta herriko Udalak ordainduko dute erdibana. Abuztu amaierarako bukatuta egon behar dute lanek, datorren ikasturtearen haseran, irailan, alegia, klaseak normaltasunez has daitezen. Aurtengo ikasturtea udaletxeko aretoetan egiten ari dira Itsasondoko ikasleak, baina irailetik aurrera eskolara itzuli ahal izango dira.

✍ ***Maite Amundarain***

## ZEGAMA

# Ekintza ugari herrian

Udalak, Kultur-etxeak, Orkatz abesbatzak, Intsumisioaren aldeko taldeak, Guraso elkarteak, Aitzgorri F.K.-ak eta Frontoiko batzordeak antolaturik hainbat ekintza burutzekoak dira herrian:

**Maiatzak 14ean,** Legazpiko Legazpi Abesbatzaren emanaldia Eliza Nagusian, gaueko 9etan. **15ean,** "Soldados de juguete" "Igandeetako bideoemanaldien" barruan (hilak 29an "Critters" filma botako da). Elgoibar C.D.ren aurka jokatuko dute Aitzgorri Futbol Klubeko kadeteek (Infantilek, maiatzaren 21, 22 eta 23an Frantziako "Foulayronnes" Torneoan parte hartuko dute). Mendi irteera Mendatako Muturrera abiatuko da (mendi irteera hauetan parte hartzen duenak, norberaren ardura izango du). **22 eta 23an,** Arantzazurako Peregrinazioa. Kasinoak antolatutako VI Ipui Lehiaketaren sari banaketa 23ko arratsaldean. **25ean,** "Galapagos" ikusentzunezkoa Kultur Etxean, iluntzeko 8,30etan.

Intsumisioaren aldeko ekintzak aurreko GOIERRITARRAn agertu ziren. Gaineratu, intsumisioaren alde egindako errifaren zozkieta herriko parkeko kioskoan egingo dela maiatzak 23an.

✍ ***Edurne Albizu***


"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



OKINDEGIA GARONA

Kale nagusia, 35 ☎ 88 77 58 BEASAIN

Santa Maria, 19 ☎ 16 00 44 ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA
Aita Urdaneta ☎ 88 72 76




Maiatzak 25, Garagardo-Festa galanta!

880035 ORDIZIA

GOI·ETXE s.a.

ERAIKUNTZEN PROMOZIO ETA SALMENTA

Tfnoak.: 88 49 50 - 88 49 54
Filipineta, 13- behe esku.
ORDIZIA

# Dagoeneko badugu Euskara Talderik: Hitzaro

Apirilaren 29an egin zen batzarrean sortu zen "Hitzaro" Euskara Taldea. Bultzatzaileen artean, Joxe Mari Barandiaran, Belen Maiza, Mikel Oiartzabal, Jose L. Gonzalez, Juanita Amundarain, Maite Irastorza, Andoni Eskisabel, Karlos Mintegi, Aitor Asurmendi, Guzman Vazquez, e.a. daude. Estatutuak ere onartu ziren. Elkarte berriaren helburua euskararen normalizazioa da eta euskal kultura sustatzea bertan. Talde ireki bezala planteatzen da, mota guztietako jendeari zuzendua, ideologia politikoak aparte utzita; bazkide izateko eskatzen diren baldintza bakarrak, 16 urte eduki eta gutxieneko euskararen ezagutza izatea, erraza dena betetzen borondate apur batekin. Talde lana bultzatu nahi da, euskararen inguruko alorretan saiatuz. Dagoeneko 80 bat bazkide bildu ditu Hitzarok, alkatea bera tartean, eta beste 400 bat euskaltzale biltzea espero da proiektuaren inguruan. Lokalari dagokionez, Udalak berak eskaintza bat egina die eta badirudi laister asko izango dutela. Kuota 4.000 pzta./urteko izango da, baina langabetuek, ikasleek, e.a. lanaren bidez ordain dezakete dagokiena. Maiatzak 20rako geratu ziren Arduradun Batzordea aukeratzeko eta dei egiten diote jendeari parte har dezan.

Garagardo-festa "Pottoloenean". Maiatzak 18an, gaueko 9etatik aurrera, garagardo-festa bikaina ospatuko da aipatu tabernako janlekuan. 2.000 pzta.ko bonoaren truk galanki jan eta edan ahal izango ditu mokau goxoenak hala nahi duenak: saltxitxak, ohizko pintxoak (plantxak, txapelak, txangurroak,...). Musika alemaniarra alaituko duen giro ederrean ospatuko da dena. Hau dena garagardo paregabe bat promozionatzeko sortu zuten pottolotarrek orain bi urte, eta iazkoan kale egin baziguten ere, urtero egitea mantendu nahi dute. Ea ondo ateratzen den dena.



*Xalba, ahuntz-gazta saltzen ferian.* *Ag.: J. Marin*

Jatorriz San Juan auzotarra den Xalba Cuadrado euskaldunberriak ahuntz-esnearekin eginiko gazta saltzen du asteazkeneroko ferian. Aldabako Aldabazarra baserrian lagun batzuekin duen gazta-tailer kooperatiba aurrera ateratzekotan dabil aspaldiko urteetan. 50 ahuntz eta bi aker dituzte esnegintzara zuzenduak eta, esan berri duenez, abere honekiko dauden aurreiritziak dituzte oztopo handien.

Azken Osoko Bilkuretan preseoen eskubideei buruzko HBren mozio bat atzera bota dute. PNV eta PSOEren aurkako botuak eta EA eta Talde Mixtoaren abstentzioak jaso zituen.

Herriaren interesa kontutan harturik, Udalak gasifikazioaren 5. fasea onar lezake. Biztanlegoaren %70ak baino gehiagok du dagoeneko etxerako gas-sarrera.

Aurreko urtetan bezala, Foru Aldundiak elbarrien aldeko laguntza-plana jarri berri du martxan. Eskaerak Udaleko Gizarte Ongizate Sailean jaso daitezke.

Ordizian urtero egiten diren Goierriko Eskolarteko Olinpiadak hasi ziren maiatzak 7an. Eskualdeko OHOko 17 ikastetxek hartzen dute parte honakoan, 1.000 partaidetik gora. Udalak eta Kutxak finantzatzen dute batez ere hau, eta zenbait elkartek ere badituzte zereginak. Guraso Elkarteko Pedro Mujikak esan berri duenez, "Eskolarteko Olinpiada ahal dugun edota uzten diguten bitartean antolatuko da".

*Aitor Calvillo eta J.A.*

**MUNDUATE**
**Erlojutegia**
***100 urte baino gehiago Goierriren zerbitzuan***
Nagusia, 1
Tfonoa: 88 12 72
ORDIZIA

**-EZKURRA -ATEAK**
Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak
Tfnoa.: 16 07 50
Faxa: 88 09 13
Domingo Unanue, 2
ORDIZIA

**OIANGU**
**TABERNA**
*Euskalerria z/g*
*Tfonoa: 88 30 03*
*Ordizia*

# Lardizabalgo 8. OHOkoak prest eskurtsiorako



*Eskolumeak parkean* *Arg.: R. Iraola*

Urterokoa da OHOko 8. urtea amaitzean, ikasleek aste bat kanpoan pasatzea. Baita bidaiarako diru apur bat eskura dezaten ekintza batzuk burutzea ere. Besteak beste, apirilaren 23an bertso eta kanta-afaria antolatu zuten Zubiburu Guraso Elkartean. Ez ziren neska-mutikoak haserre, afari-txartel guztiak saldu batzituzten eta euli bat gehiagorentzat tokirik ez zela bete ziren bazterrak. Giro ederrean igaro genuen gaua. Mendizabal eta Telleria bertsolariak izan ziren animatzaile eta protagonistarik printzipalenak. Kantatu zuten bertso ugari eta ederrik, gaiak eta doinuak tamaina-tamainan aldatuz. Horiekin batera, ezin ahaztu herriko kantariak ere, batipat Daniel eta Xeto, errepertorio luzea bezain bariatua eskaini baitzuten azkenerako, "mexikana" eta guzti. Orain kurtsoa ongi amaitu eta bidaiaren zain geratzen dira Lardizabalgo ikasleak eta ekainean joango dira Canet del Mar-era astebete pasatzera.

## San Isidro Eguna

San Isidro Eguna bi ospakizunen inguruan joango da. Batetik, Kultura Batzordeak antolaturik, dantza soltoko txapelketa izango da herriko plazan, 12,00etan. 15 urtez goiko 10 bikote arituko dira lehian, fandangoa eta arin-arina dantzatuz. Bestetik, Arotxanean, urtero egin ohi den festa izango da. Arratsaldeko ordu 2etan, baserritarren lagunarteko bazkaria, bertsolari eta trikitilariekin; arratsaldeko 7etan, toka txapelketa; 9etatik goizaldera arte, dantza saioa, Jauregi anaiekin.

## Santafetako bideoak ikusgai

Maiatzaren 2, 5, 9 eta 12an, iazko Santafetako bideoak eman dira Kultur Etxean. Horrez gain, bideo horiek etxean ikusi nahi dituenarentzat zerbitzua prestatu da Kultur Etxean bertan. Festatako gertakizunik printzipalenak jasotzen dituzten 7 zintak osatzen dute bideoteka; eguneko bat eraman ahal izango da etxera, 300 pezetaren truke.

## Animalia bakoitza bere tokian

Animalia bakoitza bere tokian, bai, "eta behar den bezala zainduta" erantsi beharko genioke, jolastokiak eta parkeak txukun egon daitezen. Baina, dirudienez, zakur batzuk behar eta premiarik gabe ari dira zenbait lorategi eta parke erregariatu eta simaurtzen. Hain zuzen, zenbait herritar eta udaletxeko jardinzainengandik kejak jaso ditugu sail honetan argitara ditzagun. Laburbildurik, hauxe da arazoa: herriko parke eta lorategietara ateratzen dituela zenbait jendek zakurrak beren eginbeharrak egitera, bistakoa denez, bazterrak zikin eta "aromatsu" utziz, esate baterako, futbol zelaia eta medikuetxe aurreko jardina. Jardinzain hauen erregua da, txakurzale guztiek kontutan izan dezatela ohar hau eta saia daitezela zakurrei ohiturak aldarazten, simaurtu behar direnean beraiek simaurtuko omen dituzte eta.

## E.H.-ko soinu tresnen erakusketa

Herriko Kultur Batzordeak antolaturik eta Kutxaren laguntzarekin, hil honen 13tik 23ra, Euskal Herriko soinu tresnen erakusketa izango da Zaldibian. Erakusketan ikusi ahal izango diren tresnak hauek dituzue: txalaparta, alboka, tobera, adarra, xilofonoa, ttun-ttuna, etab. Astegunetan, 14,00etatik 16,30ak arte, ikastetxeentzat, eta 18etatik 20ak arte beste guztientzat, egongo da irekirik. Larunbat eta igandeetan: 12etatik 14etara eta 18etatik 20etara. Bestalde, erakusketarekin loturik, jaialdia izango da maiatzaren 22an, 12etatik aurrera. Hernaniko Udal Musika Eskolako Txakun-txan- txakun taldeak toberak joko ditu; herri eta eskola bereko Alboka taldeak alboka soinua eskainiko digu, herriko trikitixarekin batera kaleak alaituz. Herriko txalapartariek emango diote jaialdiari hasiera.

*Rufino Iraola Garmendia*


TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53 ARAMA

KEMEN KIROLAK



ORMAIZTEGI

# Ormaiztegiko "Girardelli"

Harkaitz Iurritak 15 urte ditu egin berri-berriak. Eski batzuen gainean irristatzeko kirola aukeratu zuen txiki-txikitatik. Inguruotan mendi txuri asko ez, eta asteburuero Aragoiko Pirineoetara joaten da bere familia osoarekin. Urte gutxi baditu ere, eski munduan palmares ederra osatzen ari da. Apirilaren 1. asteburutik, Espainiako txapelketa jokatzen aritu da. Aurrez Aragoiko txapelduna geratu zen, bai slalom eta bai gigante probetan, bietan ere urrezko domiña. Espainiakoetan, nahiz eta bera oso gustora ez egon, meritu handiko 3. eta 4. postuak lortu ditu. Eskia goierritarren artean oso praktikatua izan arren, konpetizioan fin dabilen kirolaririk izatea urruti geratzen zaigun gauza bat da.



Harkaitz bide hori egiten ari da eta bere esperientzia azaldu digu (zenbait datu GOIERRITARRAren 34.ean ikus ditzake irakurleak). Astun-go Clubetik Aragoiko federaziora pasa zen. Asteburuero hara joatea ez zaio gogorra egiten, noiz etorriko zain egoten da. Supergiganten 3., Giganten 4. eta ez dago oso gustora. "Askotan gainditzen ditudanak aurre hartu didate, zorte txarra eduki dut", dio. "Pista gustokoena Candanchu; bestela, pista onenak Frantzian daude, Alpeetakoak onenak". Eskia ez da kirol arriskutsua, elurra nola dagoen; izoztua badago, kontuz! Minik ez du hartu inoiz ordea. Udan konzentrazio fisikoa egiten dute eta, negua gerturatzean, pistan egiten dute teknika eta dena aste batzuetan zehar. Girardelli eskiatzailea du idolotzat eta atzerrira ere aterea da lasterketetara: Italian, infantil txapelketa bat eta Frantzian internazional bat, slalomean 28. geratu zen. Harkaitzek badu atzetik beste lagun bat konpetentziarako, bere anaia Hodei, Aragoiko txapelketan 2. geratu dena. Kirolari finak datozte eta gertutik segituko diegu.

✍ *Ion Aldanondo*

IDIAZABAL

# Kultur Astea dela eta

Eguzkitsu iritsi da aurten "kuku sasoi" hau. Urtero-urtero, Idiazabalen, garai modu honetan, aste kulturala ospatu ohi dugu eta gaur horixe "salatzera" nator ni: aurten, ohizkoa ez bada ere, 9 eguneko astea sortu dugu idiazabaldarrok, hamaika ekintza ezberdinez osatua. Maiatzaren 2an hasi zen festa eta 15ean amaituko da. Besteak beste, hitzaldiek izan dute nagusigoa gure herrian, hasi ikastetxe ezberdinetako ordezkarien hitzaldietatik, intsumisioaren inguruan GO-Teko kideen solasaldiaz jarraitu, feministen aholkuak entzun eta Pako Aristi idazlearen bixita txalotzeraino. Guztiak ere oso interesgarriak edonorentzat.

Bestalde, ezin ahantziko dugun alorra mendi zinemako zikloarena da, izan ere, askotan ez bezala Kultur etxeko aretoa betetzea lortu baitzen. Hilak 6ean bertako eta Beasaingo akordeoilariek herriko plaza alaitu zuten eta ostiralean ezezik larunbatean ere entzun ahal izan genuen soinu hotsik. Egun berean, azken bost urteetan bezala, herriko txirrindulariek beren indarrak neurtu zituzten Albitxuko aldapetan gora. Zelaako kiroldegian ere izan zen festa-giroa, herriko neskek bolei-bol partidu bikain bat eskeini baitziguten eta azkenik, gaualdean, Igarondo pilotalekuan elkartu ginen afari goxo bat dastatzeko asmoz. Asmoak gauzatu eta ez ginen ez atzera begira geratu, postrerik hoberenaren pareko izan zen "Kazkabarra" taldearen saioarekin itzali baigenituen argiak.

Orain datorren igandea noiz iritsiko zai gaude, gure herrian hain estimatua den artisau erakusketa eta ondorengo talo beroen mamia probatzeko. Besterik ez, hemendik irakurlea gonbidaturik dagoela esatea baino. Igandean ikusiko gara beraz, Idiazabalen ez baitago galtzeko beldurrik.

✍ *Aloña Galarraga*


inlingua
hizkuntzak

**INGELESA, ALEMANIERA, FRANTSESA ETA ARABIERA**
*Matrikula zabalik*
*Jatorrizko irakasleak*
*Maila guztiak*

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA

# Ordizia K.E.-ko Eskubaloi Taldea



Klubaren 2. aroko 3. urtea positibotzat baloratzen da bertako eskubaloi-zirkuluetan. Taldeak, sendotzeko, hurrengo oinarriak izan ditu: Lurraldeko 2. mailako Ordizia-Hiper- Armendarizek itxurazko papera bete du 12 ekipoetatik 9. geldituz. Postu hau ez da hain txarra, kontutan hartuz plantila motz gelditzen zitzaiola eta bere jokalarietatik 3 hoberenik gabe ibili dela (Jesus M. de Marcos, Javier Dorado eta Iñaki Insausti), estatu-mailako 2. kategoriako Eibarko Arratera joan direlako denboraldi honetan. Bestalde, asko ilusionatu gaitu goleatzaileen taulan Asier Zabala ordiziarrak lortu duen 2. postuak. Guzti honetan ikusten da gure klubak eduki lezakeen potentzialitatea.

Jubenilen taldeari dagokionez (Lurraldeko 1. mailako Ordizia-Barandi taberna-Intercom), seniorretan gertatzen diren antzeko zantzuak: 2. urteko jubenilak irabaziko luketeen partiduak galdu dituzte, hasiberriak balira bezala. 9 ekipoetatik 7. postuan daude eta taulan 5. eta 6. klasifikatuekin enpataturik. Gauza aipagarriena da gazteen artean oinarri sendo bat badela, jokalarien falta badute ere. Desgasteagatik Udaberriko torneoan kolokatuko zituen partidu erabakiorra galdu zuten, adibidez.

Halere, inportanteena klubak duen etorkizun-proiektua genuke. Aurten, geure ahalmen apalen barruan, bi proiektu berri jarri dira martxan: mutil-infantilen ekipoa, 94-95 denboraldian kadete-taldea izango dena eta neska-infantilena, helburu berarekin. Uste dugu ona dela harrobia bultzatzen ahalegintzea, goiko mailak asetu eta jokalarien hutsunea betetzekotan. Neskatilak ere ikasten ari dira. Etorkizunik bada. Gainontzean, denboraldia dugu aurrean. Senior ekipoak Federazio Tropea du aurrez-aurre; bere taldean Lurraldeko 2.eko 2 talde daude, beste 3 talde 1. mailakoak eta, azkenik, estatu-mailako beste bi ekipo. Era berean, Gipuzkoako Kopa jokatuko du jubenilen taldeak, zeinean Euskal Ligako 3 ekipo, Jubenilen Lurraldeko 1. bat eta 2. beste bat ere izango dituen arerio.

Lerro hauen bidez, eskubaloi talde honek, eskerrak eman nahi dizkie herriko zenbait merkatal establezimendu eta erakundeei eman diguten laguntzagatik.

*Zuzendaritza*

KATTALIN
ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
*Sagardoa txotxetik*
Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN

BARANDI
TABERNA
Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

HITZARO EUSKARA ELKARTEA
**Gaurtik aurrera elkarte honetako bazkide izan nahi dut:**
IZEN-DEITURAK: ............................................Tel:........
HELBIDEA:......................... HERRIA:......... Posta-kodea:.....
Urteko 4.000 pezetako kuotaren ordainketa:
- banku-kutxaren bidez: ....BANKU/KUTXA .......... Kontu zbk.:.......
HITZARO EUSKARA ELKARTEA: 4 posta-kutxa .- 20240-ORDIZIA

GOIERRITARRA
88 96 12

# Migel Antonio Zumalakarregi

**"Zumalakarregi" entzun eta Ormaiztegiko buruzagi karlista etorri ohi zaigu burura; histori kontuetan adituek eta literaturgileek behin eta berriz ekarri digute haren ekintzen berria. Izan zen, ordea, garai berean bizi eta (bere politika egiteen medioz) histori liburuetan lekutxo bat irabazitako beste Zumalakarregitar bat ere; Tomas famatuaren anaia... baina liberala. Horra, hainbeste borroka ekarri zuen XIX mende zalapartatsu hartan, familia berean bi muturrak.**



Migel Antonio, anaia baino 15 urte lehenago jaio zen 1773.ean, Frantzian Ilustrazioko pentsalariek proposatutako gizarte eredu berria eztabaida bizian zegoela; Carlos III.a zen errege Espainian orduan eta iritsi zen hona ere haize berria. Goierriko nekazari herriak ez ziren izango, nolanahi, liberalismo berriaren hazia ernetzeko lurrik gozoena; hiriko jende eskolatuak zabaldu bide zuen hura.

Idiazabalgo semea zen. Zumalakarregitarrek, aita eskribaua izan zuten eta urte batzuk igaro ondoren egingo du Ormaiztegira; Errekaarteko etxearen jabea zen Idiazabalen. Migel Antonio seme zaharrena zela (senideetan bigarrena), aitaren bidetik eramango dute etxean; Legegintza ikasi zuen. Unibertsitatekoak bukatu ondoren, auzitegiz auzitegi burutu zuen bere lanbidea, Sevillako Errege Entzutegian abokatu hasi eta Oviedo eta abarretan magistratu izanez; Madrilgo Auzitegi Goreneko kidetzaraino iritsi zen. Politikagintzan ere oso goian ibili zen. Lehenago esan bezala, liberala dugu Migel Antonio. XIX. mendean makina bat gorabehera izan zen Europan Frantziako iraultza liberalaren ondotik; batean liberal berrizaleak nagusitu, bestean betidaniko jauntxoen absolutismoa... Espainian eta Euskal Herrian ere ez zen bestela izan. Tomas anaiak karlisten bidetik jo zuen legez, Migel Antoniok kontrakoari heldu zion.

Migel Antoniok Cadizko Gorte famatuetan esku hartu zuen Gipuzkoako diputatu; idazkari izatera ailegatuko da. Han idatzi zen 1.812an Espainiako lehen Konstituzioa, Napoleonen armadaren aurkako gerra aurrera zihoala, artean. Etorriko da buelta. Napoleon bidali bai baina baita Fernando VII.ak bere errege agintea berrezarri ere. Migel Antonio eta liberal guztiak ixilpera; lanbide barik geratuko da. 1.820-23an liberalak agintean berriz eta Migel Antonio goian; gero behera berriro. 1.833an Fernando VII.a hiltzean, liberal eta absolutisten arteko desadostasunak areagotu egingo dira. Gerra piztu da; Migel Antonio eta buruzagi karlista bihurtua den Tomas anaia elkarren aurkako ditugu. Migel Antoniok gutun bat zuzendu zion Tomasi Logroñotik, Carlosen armada utzi eta Isabel erreginaren alde jartzeko, baina alferrik.

Anaia gerran hilda, Migel Antonio berriro ere diputatu izango da Madrilgo Gorteetan, Gipuzkoaren izenean; lehendakaritzaraino heldu zen. Gero, Donostiako alkate (1.840) eta (bere politikabidean gailur) justizi ministro bihurtuko da 1.842-43an, liberalen gobernuan. Madrilen hil zen, 94 urte bete eta gero.

***Antonio Berasategi***


**Arkupe** *Tapiztegia*
*Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak*
*Mantak - Maindireak - Mahai ohialak*
*Toailak - Gortinak eta osagarriak*
**Manuel Zeberio**
J.M. Barandiaran Plaza
☎ 88 00 84 ORDIZIA

**ZURICH**
ASEGURUAK
GURUTZ BARANDIARAN
Esteban Lasa 7, 1.-C Tf./Faxa: 88 88 92 BEASAIN

**IBAI - ONDO**

**ZURGINTZA**
**HALTZARIAK**
**P.V.C.ko LEIHOAK**
**Tailer eta erakusketa:**
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfonoa: 880543 **BEASAIN**

Erakusketa
Sukaldeko tresnak
*Alpe*
Mariaratz, 4
Tfonoa: 88 86 84 BEASAIN

**mujika**
**OINETAKOAK**
Nafarroa Etorbidea, 11 - Tel. 88 27 16
**BEASAIN**

# orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.:(943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxa: (943) 88 73 08

itxura baino gehiago...

ANtzA

*FOTOKONPOSAKETA* • *INPRIMATEGIA*

*Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 – Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA*